

Xabier Etxaniz Erle

Literatura eta ideologia

Utriusque Vasconiae

© Xabier Etxaniz Erle

© Utriusque Vasconiæ

Lehen argitaraldia: Donostia, 2007ko azaroa

ISBN: 978-84-935757-3-1

Lege-gordailua:

Azaleko irudia: *Fruitu debekatua*. Auguste Toulmouch-en pintura batetik inspiratutako grabatua.
1865

Maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE

Ategorrieta Hiribidea, 3-3. 20013 Donostia.

Tel.: 943-270433

Banatzaila: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

Xabier Etxaniz Erle

Literatura eta ideologia



EHU 06/34 ikerketa-proiektu barruan egindako lana

Liburu hau Ur Apalategi Idirinek zuzenduriko
KRITIKA LITERARIOA
sailean argitaratzen da

AURKIBIDEA

Sarrera	9
I. Ahozko literatura, tradizioaren ideologia	23
II. Emakumea literaturan	32
III. Indarkeriaz eta gatazkaz	43
IV. Irudiak ikusiz ikusten ez diren baloreak	61
V. Disneyren obrak: ideologiaren boterea, boterearen ideologia	77
VI. Irakurketa kritikoaren alde	91
Bibliografia	95

La literatura es uno de los instrumentos de autoconciencia de una sociedad (Calvino, 1983: 373.)

Un texto literario es un agente importante en la transmisión de la cultura; en definitiva nos proyecta las imágenes (identidades e identificaciones) mediante las cuales los seres humanos configuramos nuestras vidas y actitudes, que se le comunican y transmiten a las generaciones posteriores. (Iris Zavala, 1993: 48.)

Sarrera

Daniel Cassanyk berriki komentatu izan du historian zehar dominatzaileek zenbait elementu erabili izan dituztela bere nahia ezartzeko. Kataluniako irakasle honen esanetan Erromatarren garaian edo Erdi Aroan ezpataren indarrez egingen zen hori, geroago pistolen indarra izan da, baina gaur egun ez, gaur egun beste arma bat erabiltzen da estatu demokratikoetan: diskurtsoa.

Es un arma sutil, versátil, poderosa. Puede convencer, seducir, enamorar, irritar o manipular. Es tan poderosa, que todos deberíamos saber utilizarla. (Cassany, 2006: 49).

Diskurtsoa, hizkuntzaren erabilera, hitzen indarra gero eta garrantzitsuagoa da gure gizartean, gure gizarteko arlo guztietan, baita kulturaren eta literaturan ere.

Literatura liburuen helburua entretenitzea eta gozatzea bada ere, ezin uka dezakegu literaturaren eta ideien arteko lotura. “Nazio modernoek literatura erabili izan dute bere legitimita-

tea sortzeko, nazioen artean bere burua agertzeko. Horregatik deitu izan dira Literatura Nazionalak European sortu izan direnak, nazio sortzeko baliagarriak geratu izan diren neurrian.” (Kortazar, 2002, 21. orr.); alegia, literaturgintza bere osotasunean ideia batzuen menpe erabili (eta sarritan eraiki) izan dela. Baina horretaz gain narratzen diren istorioak direla eta, edo horiek narratzeko modua dela kausa, beti transmititzen dira ideiak batzuk. Zenbait kasutan oso modu argian, geroago ikusiko dugun bezala, beste askotan, berriz, ageriko mailan azaldu gabe. Eta fenomeno hau genero guztietan ematen bada ere, are nabarmenagoa –agian azalera tuagoa esan beharko genuke– dugu haur eta gazte literaturan. Sánchez Corral irakasleak artikulua interesgarri batean (Sánchez Corral, 1992: 528.) zera dio, haurrentzako liburuen egituran helburu moralizatzailea dugula nagusi; era berean Felicidad Orquín ikerlariak honako hau zioen *CLIJ* aldizkariko artikulua batean literaturaz eta norberaren garapenez ari zelarik:

La literatura tiene un extraordinario poder de sugestión y todo gran lector sabe en qué medida los personajes de ficción han conformado su propia vida, su manera de sentir y de pensar (...) Esta fascinación de la literatura se acentúa cuando es un lector joven quien se enfrenta a lo imaginario. (Orquín, 1989: 15.).

Ukaezina da literaturak hasiera-hasieratik izan duen baloreak eta ideiak transmititzeko helburua; Italo Calvinok berak ere aitortu duen bezala: “soy consciente de que el nudo de las relaciones entre política y literatura, contra el cual tropezábamos en nuestra juventud, aún no está desecho” (Calvino, 1983: 368). XX. mendean lehen erdian Espainian, hainbat neurri hartu ziren ildo honetan; Catalunyan, Comissariat de Propagand zelakoaren bidez, askatasunaren aldeko ideiak bultzatu ziren, “la extensión de la cultura fue entendida entonces como uno de los grandes aliados ideológicos contra el fascismo. Y en este sentido, la II República fomentó la creación y difusión de los libros infantiles e impulsó la potenciación de la lectura” (García Padrino, 1992: 406.). Errepublikak alfabetizazio kanpaina handia egin zuen (mende erdi beranduago Hego eta Ertamerikan egin izan den bezala), baina frankismoaren lehen urteetan maisu-maistrek ez ezik (50.000 izan ziren frankistek “depuratuak” 1937. urtea amaitu baino lehen) gizarte arlo guztiek jasan behar izan zuten zapalketa ideologikoa. Ikusi bestela, 1943ko azaroaren 23an emandako agindua:

Libros de iniciación a la lectura y escritura.- Habrán de desenvolver, en sus ejemplos, temas religiosos, patrióticos y del Movimiento, sin exclusión de ninguno de ellos. La parte gráfica responderá a lo expuesto, no de-

biendo faltar la bandera de España, las del Movimiento y los retratos del Caudillo y de José Antonio. (Cendán, 1986: 53.).

Urte batzuk beranduago, 1955ean, dekretu bat argitaratu zen (*BOE*, 1955-7-23an) haur eta gazteentzako liburuen ezaugarriei buruz. Dekretuak honako pasarte hauek ditu islatu beharreko ideien inguruan, beste askoren artean:

Se evitarán (...) toda desviación del humorismo hacia la ridiculización de la autoridad de los padres, de la santidad de la familia y del hogar, del respeto a las personas que ejercen autoridad, del amor a la patria y de la obediencia de las Leyes. (...) los relatos que presenten a una luz favorable las reacciones antisociales, bien porque muestren el éxito logrado poniendo en juego los mecanismos de agresión al margen de las leyes, bien porque den de lo social una versión tendenciosa y errónea, a base de “grupos o partidas” en que se acumulen los instintos vindicativos o sus componentes y las posibilidades de triunfo amoral. (op. cit.: 57-58)

Bitxia da ideia horiek bultzatzea boterea “poniendo en juego los mecanismos de agresión al margen de las leyes” lortu zuena izatea, hots Francoren diktadura.

Beste arlo batean Euskal Herrian ere, ugarriak dira, esaterako, euskal literaturaren historian euskaltzaletasunak edo euskararenganako

maitasunak bultzaturik idatzitako lanak, eta helburu hori aitortzen duten egileak. Aipamen asko egin ditzakegu, agian, ezagunetariko bat Arrese Beitiaren “Ama Euskarari azken Agurra” poema ezaguna dugu, Elizondoko Lore Jokoe-tan irabazlea. Hori bezain enblematikoak ez dira ondorengo adibide hauek, baina bai idazleen helburua argi eta garbi adierazten dutenak; 1927an argitaraturiko O. Wilderen ipuinetan “Dana-dala, gure Ama Euzkereari opari txiki au egin gura ixan dautsot, orren biarra, !biar andi-ja gero! daukolako.” diosku itzultzaileak; horien antzeko hitzak aurki ditzakegu J. Etxaidek *Purra! Purra!* (1953) liburuari egindako hitzaur-rean ere: “Jaungoikoari bearrik orixe ba-dugu: euskeraren alde aritzeko etengabeko boron-datea. Beraz, Jaungoiko on-onak eta zuk, irakurle maite orrek, asketsiko (absolver) al dizki-dazute liburutxo ontako utsegite ta gaizki esa-nak”. Gipuzkoa, Bizkaia, herrialde guztietako idazleek izan dute kezka hori; hona Mayi Ariz-tiak 1943an kaleratu zuen *Amattoaren uzta* libu-ruaz dioena hitzaur-rean: “Eta dena izanen da gure Eskuararen onetan, haren maitarazteko eta hedarazteko, Jainko maiteak hala nahi due-larik.”

Sarritan, berriz, gure artean kanpoan bezala, ideiak ez dira hain zehatz adierazi nahiz eta tes-tuaren azterketan argi nabaritu idazlearen nahia zein izan den. Txomin Agirrek esaterako, gure

idazle klasiko eta ezagun bat aipatzearen, modernitatearen kontra, kaletarren kontra, ezker ideologiaren kontra jo zuen bere obretan, horretarako “euskal” espazioak errebindikatzen zituela, hots, baserria, itsas bazterrak, eta espazio horiekin loturik mundua ikusteko modu bat, erlijioa, euskara eta tradizioa lotzen zituen ideologia.

Literatura modernoan, ere, baditugu apropos eginiko apustuak. Bernardo Atxagak, *Behi euskaldun baten memoriak* (Pamiela, 1991) obran esaterako, euskalduntasunaren alde egin izan du. Baita berak onartu hori ere eta judutarrek egin ohi duten bezala, euskal kultura ere errebindikatu:

Larzabal apaiza, Uztapide... Hor egiten dudana oso judua da (...). Hor dago harrotasun bat eta zibilizazio bat. Kultura bat zentzu oso zabalean hartuta. Hori oso gutxi egin dugu hemen. (*Argia*, 92-1-12, 46. orr.)

Baina horren aipamen zehatzak eta argiak alde batera utzi gabe, literatura arruntean, “neutroan”, mezua edo mezuak, sarritan ideia ugari transmititzen baitira, honako elementuotan islatzen dira: estiloan, lexikoan, edo erabilitako hizkuntza berean, pertsonaietan, hauen betebeharretan, estereotipo batzuen aurrean duten jokabidean... Obraren diskurtsoa idazleak –edo ilustratzaileak, dagoen kasuetan– bultzaturik ageriko zaigu askotan, bestetan ez da nabarmen-

na izango, eta gehienetan boterearekiko loturik, atxikirik ageriko zaigu; hots, indarrean dagoen boterea sendotzen. Lehenengo kasuetan irakurlea oso kontzientea izango da, A. Lertxundik idatziriko *Zorion perfektua* (Alberdania, 2002), Bernardo Atxagaren *Gizona bere bakardadean* (Pamiela, 1993) edo Patxi Zubizarretaren *Barrikadak* (Alberdania, 2003) euskal gatazkari buruzko obra paregabeak dira, baina guztietan bilatzen da irakurlearen gogoeta bortxakeriaren fenomenoaren aurrean. Beste lan batzuetan, aldiz, ez da hain nabarmena idazlearen ideologia; Imanol Zurutuzak idatziriko *Errautsera arteko sugarra* (Elkar, 2002) nobela zoragarrian, esaterako, idazlearen ideiak ere egongo dira, baina, kasu zehatz horretan, obrak eragindako sentimenduen, gogoeten ondorioak ideiak baino funtsezkoagoak, eraginkorragoak izan dira sarritan. Eta badira ere, aurretik aipatu bezala, beren ideologia ez dutenak hain azalean agertzen finean aldaketarik gabeko gizartea bultzatzen dutelako. Argigarriak dira, alde horretatik hizkerari buruz, baina literaturaz ere balio duten, Asunción Lasaosa Zazuren hitzok:

La lengua expresa lo que pensamos y constituye un reflejo de nuestro entorno. Pero la sociedad cambia y muchas veces el elemento que tenemos para referirnos a ella, el lenguaje, no reacciona. Así la lengua se convierte en espejo de formas de vida

pasadas y deja de tener correspondencia exacta con el colectivo del que parte y al que se refiere. (Inma Erreak aipatua, 2003: 128).

Argi dago, beraz; aldaketa eragiten ez duen produktuak, literatur lanak, indarrean dagoen boterea, dauden estereotipoak, dauden ideiak bultzatu egingo ditu. Ideia hori oso nabarmena da genero kontuetan, arestian aipaturiko F. Orquinen artikuluan Princetowngo Unibertsitatean (AEB) 1971an eginiko ikerketa bat komentatzen da. Unibertsitate horretako irakasle talde batek haurrentzako hamabost liburu bilduma aztertu zituzten eta honako ondorioak atera: mutilak 881 ipuinetan ziren protagonistak, neskak 344tan, “como conclusión final constataron que desde los primeros años niños y niñas aprenden que los varones son dominadores y las hembras pasivas” (Orquín, 1989: 15.). Gugandik hurbilagoko adibide bat jar-tzearren, eta bestelako elementu bat erabiliz, aipa genezake *Maripertxenta* (Ormazabal, 1986) liburuan agertzen den irudi bat; bertan ama ikus daiteke afaria prestatzen, alaba mahaia jartzen eta, bitartean, aita lasai-lasai eserita egunkaria irakurtzen irratia entzuten duen bitartean.



Maripertxenta. J. Ormazabal; Astrain. Elkar, 1986

Are gehiago, badira gure merkatuan ideia aurrerakoien transmisioa zaintzen –eta bultzatzen– omen duten argitaletxeak baina, eta hau da adierazgarriena, beren testuetan estereotipo

sexistak oharkabeen islatzen dituztenak. “Baporea” bilduma (ez dugu ahaztu behar S.M. argitaletxeak bere lehiaketan elkartasuna, adiskidetasuna, ekologia, bakea... bultzatzen dituen obrak eskatzen dituela) aztertu eta gero, esaterako, ikusi ahal izan dugu hori (Etxaniz, 2001). Hain zuzen, aurretik aipatu izan dugun ideia transmisioan hainbat kontzeptu oso bistakoak direlako (bortxakeriaren kontrakoak, inmigrazioaren alde, elkarbizitza...) baina, era berean, badira beste batzuk ikusezinak bilakatzen direnak, hain zuzen gizarteak guztiz onartuak dituelako, ez zaizkigulako arrotzak egiten, alegia; *Txorimaloarenak* (S. M., 1992) obran, esaterako, irudi guztietako protagonistak gizonezkoak dira, eta behin bakarrik ageri da emakume bat; eta hau, aurrerago ikusi ahal izango dugun bezala estereotipoak indartuz: etxeko leihotik kanpora begira. Liburu berean emakumea “sexu ahultzat” jotzen duen gertakari bat ere azaltzen da: Joan zezenaren aurrean geldi-geldi geratzen denean eta zera esaten diotenean:

“Herri honetan gizon bat badagoela kontatu beharko dut hemendik aurrera” (50. orr.).

“gizon” hitzak konnotazio oso markatuak ditu, gizona adoretsua, ausarta,... Horrelako pasarteek eta egoerek azaleraztan dituzte gizartean sarri oharkabeen ageri diren ideiak.

Alde horretatik, beraz, ez gaitu harritu behar 2004ko urriaren 22an *Diario Vasco* egunkariak erakusten zuen honako titularrak: “Familia tradizionalaz kanpoko ereduak erakusteko ipuin bilduma sortu da”, hain zuen Elkar argitaletxeak eta Katxiporreta enpresak plazaraturiko bildumaz ari dena. “Zeharka ematen dute eman beharreko mezu pedagogikoa” adierazten du Joxean Ormazabalek proiektuaz hitz egitean, izan ere Agipasek (banandutako gurasoen elkarte), Ume Alaiak (umeak adoptatzeko laguntzak ematen dituen elkarte), Beroak (familiaren babesa galdu duten haurrei laguntzekoa) eta Gehituk (gay eta lesbianen elkarte) jardun dute egitasmoa garatzen. “Familia-eredu arrunta edo tradizionala deitzen denaren ondoan (aita, ama eta seme-alabak), geure gizartean dauden hainbat familia-eredu berri ere onartu behar dira” dio arestian aipaturiko elkarteek eginiko prentsa oharrak, eta eredu berri horien alde egindako lanarengatik, eskerrak ematen dizkiete Pirritx eta Porrotx protagonista dituen bilduma plazaratzen lagundu dutenei.

Beste alde batetik euskal literaturan literatur genero batzuetan, haur eta gazte literaturan (HGL) esaterako, bada gertatzen ari den fenomeno bat. Hots, gure artean literaturak, gozatzeko eta entretenitzeko balio hori baztertu gabe, irakaskuntzarekiko mendekotasun handia du; edo, beste modu batean esanda, euskal lite-

raturak eskolarekin (berdin da lehen hezkuntza, unibertsitatea edo euskaltegia izan) lotura estua du. Jon Kortazar ikerlariak dioen bezala: “Literatura, beraz, hizkuntzaren menpe. (...) gure literatura eskolaren menpe dugun aro honetan (...)” (Kortazar, 2002: 61). Ez dugu azterketarik arlo horretan, baina interesgarria litzateke euskal argitalpen baten jarraipena egitea, nork erosten duen, zergatik,... Susmoa dugu euskal literaturako liburu gehienak, arestian aipatu bezala, eskoletan saltzen direla (badira salbuespenak, poesia, adibidez; edo *Soinujolearen semea* (Pamiela, 2003) erosi zuten lehen erosleak, baina liburuen berrargitalpenak irakaskuntzak salduarazten ditu, zalantzarik gabe). Honen ondorioz zera adieraz dezakegu, HGLn gertatzen den bezala, gure artean irakurleak –salbuespen bakar batzuk kenduta– bitartekarien bidez eskuratzen dituela liburuak; hots, irakasleak esanda (zuzenean aginduta edo hainbat lan “irakurri behar” direlako). Alde horretatik ez gaitu harritu behar liburuen hartzaileaz gain, obra horrek bitartekariaren (irakaslearen) gustukoa ere izan behar duela esateak; eta ez bakarrik gustu literarioa, baita ideologikoa ere (eta jarrera honek azal dezake ideologia zehatz bateko liburuek duten arrakasta edo garrantzi txikia hainbat ikastetxe edo euskaltegian).

Ondorengo ataletan saiatuko gara euskal literaturan –eta neurri batean literatura guztietan–

dagoen ideologizazioa islatzen. Horretarako gu-re artean ideia batzuk nola agertzen diren aztertuko dugu, eta euskal literaturan gertaturiko fenomeno batzuk azaldu.

I. Ahozko literatura, tradizioaren ideologia

Euskal literaturari buruzko historia liburuetan eta manualetan gure ahozko literaturaren garrantzia aipatu da behin eta berriro. Bi arrazoi nagusi daude, nire ustez, ahozko literaturaren goraipatze hori egiteko, alde batetik material ugari eta oso aberatsa iritsi zaigula, eta hori horrela dela ikusteko nahikoa da R. M. Azkuek plazaraturiko *Euskalerrriaren Yakintza* obra mar-dula ikustea edo Pierre Lafitte eta Louis Dassance, Koldo Mitxelena, Jose Maria Satrustegi, Jaun Mari Lekuona, “Maria Goyri” eta “Mikel Zarate” mintegikoak, Jon Juaristi edo Antonio Zabalaren bilketak; eta bestetik, idatzizko produkzio urriaren aurrean ahozkoak pisu handiagoa izatea. “Ezbairik gabe, euskal literaturazaleari (...) ezagunak zaizkio euskal eleberrien sorrera berantiarrak gurean izan zituen arrazoi

sozio-historikoak” diosku M. J. Olaziregik (2002: 9) eleberriaren historiaz hitz egitean, baina literaturaz orokorrean ari dela esan deza-kegu. Gurean, ezaguna den bezala, euskal alfa- betatuak oso urriak izan dira, eta hizkuntza es- tandarizatua oso berria.

Euskal kulturen urte askotan apaizen esku egon da literatura. I. Sarasolaren (1975) datuen arabera, honako hau dugu euskal liburugin- tzaren banaketa lehenbiziko liburua idatzi ze- netik 1900 urtera arte:

Liburugintza	argitara- tuak	berrar- gitara. kenduta	jatorriz- koak euskaraz	liburu ez erli- jioso
1545-1600	3	3	1	1
1600-1650	11	7	6	0
1650-1700	25	13	6	1
1700-1750	34	17	5	1
1750-1800	103	43	24	1
1800-1850	186	47	26	4
1850-1900	225	64	33	4
DENETARA	588	194	101	12

Hau da, euskaraz lehenengo liburua idatzi zenetik, 1545. urtetik, 1900 urtera arte, ia 600 liburu argitaratu ziren euskaraz, eta horietatik 12 besterik ez ziren sorkuntza liburu ez-erlijiosoak. Datu honek, argi eta garbi adierazten du gure literatura klasikoan Elizak izan duen eragina.

Baina, Elizaren pisua ez zen bakarrik idatzizko literaturara mugatu. Gizon horiek –gehienak gizonezkoak ziren eta– berak izan baitziren ahozko literaturako altxorra idatzizkora pasa dutenak gure artean. Eta Gemma Lluch irakasle valentziarrak aipatu bezala (2000: 34) ahozko literatura idatzizkora pasatze ekintzak, besteak beste, aldaketa ideologikoa izan zuen:

Amb el pas al paper escrit, és una versió la que es formalitza i només una la que coneix l'auditori; però, a més a més, el tipus de comunicació literària canvia radicalment perquè es produeix un pas a la lectura privada i s'exclou el públic que no sabia llegir. Com a conseqüència, hi ha un canvi de classe social i un canvi d'ideologia.

Euskal literaturan herri ipuin biltzaile nagusienetako gehienak eliz gizonak ditugu, Webster, Barbier, Azkue, Barandiaran..., horiek guztiak apaizak dira, baita XX. mende bukaera aldera ere ipuin bilketa paregabea eskaini digun J. Arratibel Estibalitzeko apaiza. Beraz, ez gaitu harrituko euskal herri ipuinetan elizaren kontrako aipamen ezak (ahozko literaturako ezau-garri bat Rodriguez Almodovar ikertzailearen arabera, 2000: 135), edo beste herrialdeetan bezala hemen ere sexu kontuak baztertzeak. Ahozko literaturak idatzizkora pasatzean, G. Lluchek aipatu bezala, aldaketa ideologikoa eman baitzen. Horrela, boteretsuen kontrako ideiak (bai

Eliza, bai botere politikoa eta ekonomikoa zutenak) baztertu egin ziren, lehenago ez bezala, azken hauek izango baitira transmisoreak eta hartzaileak. Horrez gain bitartekari hauen ideologiarekin bat egin zuten testu idatziek, eta, beraz, sexua eta txantxa bazterturik geratu ziren. Zaila zaigu euskaraz honen adibideak aurkitzea, besteak beste antzinako testu horiek transmititu behar zizkigutenek beraiek egin dutelako zentsura edo adaptaketa hori. Edozein modutan, izan dira gure garaira iritsi diren boteredunen kontrako hainbat ipuin (“Peru gezurtia”, edo “Peru Arraizpe” izenez ere ezagutzen den kontakizuna, esaterako), baina ez sexua edo elizaren kontrakorik, beste hizkuntza batzuetan gertatu bezala.

Ingeleseztan, esaterako, oso tradizio aberatsa dute arlo horretan, beren nursery rhymes ezagunak –haurrentzako errima zentzugabeak– gaur egunera arte iritsi dira, asko eta asko moldatuak baina, eta hori dugu interesgarriena, aspaldiko bertsoa ezaguna zaigularik. Bada, esaterako Halliwellen errima bat (Tucker-ek aipatua 1991: 195) honela zioena:

O rare Harry Parry!
When will you marry?
When apples and pears are ripe,
I'll come to your wedding,
Without any bidding,
And lie with your bride all night

(“Oh, Harry Parry arraroa/ noiz ezkontuko zara? /Sagarrak eta madariak heltzen direnean/ zure ezkontzara etorriko naiz/ gonbidapenik gabe /eta gau osoan lo egingo dut zure emaztegaiarekin”)

Errima honen bigarren bertsioan, aldaketa txiki bat zegoen azken lerroan: “And dance with your bride all night”; alegia, lo egin beharrean dantza egingo duela emaztegaiarekin. Hala ere, azken bertsioan, XIX. mendearen amaiera aldera argitaratuan, “And dance and sing all the night” (eta dantzatu eta abestu egingo dut gau osoan) azaldu zen, emaztea aipatu gabe eta hasierako bertsioarekin zerikusi gutxi duelarik.

Garbi ikusi da 1842an James Halliwellek eginiko lehenbiziko argitalpenetatik (eta hone-tan ere hainbat errima “interesgarri baina gordinegiak argitaratzeko” plazaratu gabe utzi zituen) 1890ean eginiko azkenera zer nolako aldaketa gertatu den. Gauza bera esan genezake Grimm anaien ipuinei buruz. Lehenengo argitalpenetik hirugarrenera (bost izan arren lehenengo bietan izan ziren aldaketarik nabarmenenak) antzeko prozesua izan genuen; indarkeria eta sexu aipamenak –G. Gomezek (2005) eginiko ikerketan ongi azaldu duen bezala– leundu edo desagertu baitziren; eta are gehiago desitxuratu dira W. Disney faktoriak eginiko bertsioetan, aurrerago zehatzago aztertuko dugun adibidea.

Euskal literaturan ere murrizketak eta molidaketak egon dira ahozko produkzio edo tradizio horretan, baina gurean hori guztiaz gain kutsu erlijiosoak indartzeko asmoa izan da. Horrela, Arratibelen ipuinean Mari Xor protagonistaren maitagarria Ama Birjina da, eta gauza bera gertatzen da “Gatza ala piperra” J. M. Barandiaranek jasotako ipuinean edo Barbierren “Zazpi lapurrak” izenekoan: “Hitz horiek erran orduko, suntsitu zen atxo zaharra, eta muthil gazteak jakin zuen hola Ama-Birjina bera agertu eta itzali zitzaiola tenore hartan” (Barbier, 1989: 274). Hots, gure letretatik kanpo maitagarriari eskainitako boterea eta papera, gure artean Ama Birjinak izan du. Horrekin batera gaizkilea eta deabruaren arteko identifikazioa ere gertatu da, “Hartz-kumearen istorioa” M. Ariztiren ipuinean edo Websterren “Andere Uso eta bere orrazia” istorioetan, esaterako, horrelaxe da. Beste batzuetan, berriz, gaizkileek Elizaren kontrako jokaera erakusten dute, Ali Baba eta berrogei lapurrak istorio ezagunaren euskal bertsioan, “Lamizuloko aberastasunak” ipuinean, gertatzen den bezala:

Bidez zijoaztela, zaldun bat aurkitu zuten, elizakontrakoa bera. Bere eritxiaren galdea egin ziotenean, ele itsu ok erran zituen:

–Mezak asko balio du, zazpi mandok geiago. (Azkue, 1989: 220)

“Ele itsusi ok” aipatzean elizakontrakoaren aurkako jarrera erakusten du narratzaileak.

Ez dakigu ipuin hauen jatorrian boterearen kontrako jarrera zein zen, ezta beste zenbait arlotan egon zitezkeen ideiak edo kontuak (esaterako, eta beste herrialde bateko ipuin ezagun baten kasua jartzearen, Grimm anaien Edurnezuri istorioaren antzinako bertsio batean, Giambattista Basilek 1634an jasoan, erregeak lotan dagoen neskatxa bortxatu egiten duela “Sole, Luna e Talia” ipuinean). Ez dakigu, beraz, nolakoak ziren euskal ipuin horiek antzina, baina bai guregana iritsi direnetan zer nolako ideiak transmititu dizkiguten, eta arestian aipaturiko Elizaren aldeko ideia horrez gain, emakumea objektu moduan erabili izana dugu. Izan ere ipuin askotan erregeak edo jauntxoak bere alaba ematen baitu emaztetzat honelako eta halako ekintza egiten duenari (“Hartz-kumearen istorioa”, “Lanpara poderosa”, “Traidore zigortua”, “Printzesa irriz”, “Andere usoa eta bere orrazia”, eta abar). Baina bada, ipuin hauetan emakumearen rolari buruzko aipu adierazgarria “Peru Arraizpe” ipuinean, Peruk emaztea hil itxura egin ostean, honako elkarrizketa du hiru eskribauekin:

–Baina ez ikaratu: sari ilten dot nik au. Gaiñibeta bat daukat, ondo ilarren, txistua yo ezkeru len kenduriko bizitzea atzera emoten dabena. (...)

–Gizonak: emazte berbaldunegiak isilkortu ta urtenegiak otzaduteko eztago onako tresnarik. Emakumerik dongenak ondu ta uzuenak bezau leikez: lasterko gero. (Azkue, 1989: 284-5).

Hiru eskribauek zor guztiak barkatuko dizkiote Peruri txistu magikoaren truk. Beraiek ere “botika” hori eman nahi baitiete beren emazteei.

Ugariak dira modu bateko edo besteko mezuak herri ipuinetan, baina, aurretik aipatu bezala, indarrean dagoen boterearen aldeko mezuaz gain bi dira nagusi euskaraz: Eliza katolikoaren aldekoa eta ideologia sexista. Eta harri-garria gerta daiteke, hainbat eta hainbat ideia –gehiegizko bortxakeria, boteredunen kontrako satira, eta abar– nola zaindu diren eta, aldiz, emakumeen kontrako ideia horiek normaltzat hartu diren... eta gure artera ekarri. Azken honen adibide garbia ditugu euskal esaera zaharren artean aurkitutako perla hauek:

–Txakurrari hezurak, emazteari gezurrak.

–Oiloa eta emaztea galtzen dira,
etxetik urrun ibiltzen badira.

–Txakurra fidel azkeneraino,
emaztea beste aldiraino.

–Hara iparra eta hona hegoa,
hala kanbiatzen da andreen gogoia.

–Ama, zer da ezkontza?

Alaba, da irautea, erditzea eta negar egitea.

–Andre zikin, etxe zikin.

–Emaztearen indarra, negarra.

–Ez fida emazte ederrari
ez mandoaren gibelaldeari.

–Senar duenak jaun badu.

–Neguko eguraldiaz eta ostatuko neskaz
ez fidatu.

Edo honako igarkizun honetan transmititzen den ideia:

Zein da emakumeek berba gutxien egiten duten hila?

(Otsaila)

Ikusten den bezala harrigarriak eta pentsamolde garbi baten isla.

Ez dira emakumeen kontrako horiek gure literaturako esaera zaharretan aurki daitezkeen ideia bakarrak. Badira, esaterako, kanpotarren kontrakoak (“Atzerri, otso-herri”), iraultza, borroka edota eskubideen alde ez borrokatzera bultzatzen dituztenak –Martinez Menchenek eta Hugo Cerdak aipatu izan duten bezala, herri literatura gizarte aristokratikoaren defentsan, edo boterean defentsan, aritzen den literatura baitugu– (“Bakean bizi nahi duena, dagoela isilik”, edo “Pobrea, zeruko lorea; aberatsa, infernuko laratza”), edo aberastasunak gordetzea, atxikitzea, bilatzen dutenak (“Saldua, galdua”). Guztien gainera, baina, ideologia sexista hori dugu zabalduena eta arruntena ahozko literaturan.

Hala ere, azken hau, sexismoarena, gizonen eta emakumeen arteko botere eta harreman bereizgarri hori, ez da antzinako istorioen kontua bakarrik; gaur egungo literaturan ere adibide ugari eta oso adierazkorrak aurki baititzakegu.

II. Emakumea literaturan: XXI. mendeko emakumea, XIX. mendekoa?

Nola agertzen da islatuta emakumea gure literaturan? Zein da emakumearen papera euskal letretan? Noranzko joera du euskal literaturak? Indarrean dauden estereotipo sexistak indartzen ala gizon-emakumeen arteko rol partekatua bultzatzen du gure literaturak?

Ez dira ugari gai honetaz eginiko azterketak, baina hala ere, nahikoa da arlo honetan eginiko azterketa batzuk ikustea egoeraren ikuspegi orokorra izateko. Begoña Muruagak (1998) euskal literaturaren androzentrismo nabarmena agerian utzi zuen bezala, Linda Whitek (1996) zalantzan jarri zituen emakume idazleei buruzko datu guztiak; eta gizonezkoen aldeko jokaera salatu zuen bere doktorego tesian.

Mari Jose Olaziregik (2002: 18 eta hurrengoak) gai honi buruz hitz egitean “emakumezkoen literaturaren booma” aipatzen du, eta ho-

nako hau dio produkzioari buruz: “1995etik 2000 arteko zerrendak aztertu ondoren, argi ikusi dugu argitara emandako euskal literatur liburuen % 15 inguru dela emakumezkoek idatzia.” Portzentaia horren interpretazioa egitean ez du igoyerarik aipatzen, “presentzia nabarmenagoa” baizik. Hots, euskal letretan beti egon dira emakumezko idazleak, baina batzuetan ikusezinoak izan dira beste batzuetan baino. Edozein modutan, Olaziregik “gai honi buruzko ikerketa kuantitatibo sakonagoen beharra” erreklamatzeko du.

Azken urte hauetan hainbat lan, jardunaldi eta bilkura egin baldin badira ere (*Jakin* aldizkariak antolaturikoa, Mari Jose Olaziregi edo Linda Whiteren lan batzuk, Inma Errearen saio interesgarria...) gaur egun emakume idazleak ikusezin izaten dirau; horrela ikus dezakegu *Euskal idazleak* katalogoan, 1997an Euskal Idazleen Elkarteak plazaraturikoan 16 idazleetatik bakarra izatea emakumezkoa. Itxaro Bordak (2001) dioen bezala: “arras neke zaio euskaraz izkiriartzen duen emazteari idazle gisa bere buruaren defenditzea”.

Defendatu behar horrek bultzaturik, edo ikusezintasunarekin hautsi nahian, edo besterik gabe egoeran partaide –alde bietatik, sorkuntza aldetik eta kritikatik ere– nahi izanda, azken garaian mugimendu batzuk ikusi dira, eta adibiderik argienak Sareinak literatur egitasmoa

eta *Zortzi unibertso, zortzi idazle* (Alberdania, 2006) liburuak ditugu. Sareinak egitasmoa euskal literaturan dauden gabeziak betetzeko asmoz sortu dute emakume literatur kritikari, kazetari eta filologo batzuek. Egitasmoaren bultzatzaileen esanetan euskarazko literaturaren sarean zulo handiak daude, “eta zulo horietatik emakumeek egindako liburuak amiltzen dira” (*Berria*, 2006-9-13, 44), eta emakumeen ikuspuntutik eginiko kritikaren errebindikazioa plazaratzen dute:

Euskal Herriko literatur kritikariek kritika “matxista eta sinplistik” egiten dituzte, Muñozen iritziz. “Ez dute interesik erakusten literatur kritika feministarekin, areago ez dira gai literatur kritika feminista egiteko”. Ondorioz, Euskal Herrian egiten den literatur kritikaren maila “oso eskasa” da, aspaldiko teknikak erabilia egiten dituzte kritikariek eta kritikariak ez direnek, hots, kazetariak, historialariek... “Kritikak egiten dituztela esaten dute, baina liburuak komentatzen dituzte, eta batzuetan, oso txarto. Badirudi edozeinek egin dezakeela kritika, eta ez da horrela. Literatur kritikari batek trebakuntza behar du, menderatu behar ditu kritika marxista, kritika feminista...”

Baina literatur kritika egiteko Euskal Herrian irakasten diren metodoak “izugarri matxistik” dira Muñozen ustetan. “Euskal Herrian emakumeen literaturarik ez dagoela

esaten dute literaturaren arloko profesiona-
lek. Bi motatako literatura dagoela esaten
dute, ona eta txarra, eta ez dagoela literatura
generoaren arabera sailkatzerik.” (*Berria*,
2006-9-13, 44).

Aipaturiko ideien bidez argi eta garbi ikus
daiteke Sareinak asmo honen nondik norakoak.
Ados egon gaitzke edo ez euskal kritikari buruz
duten ikuspegiarekin, izan ere sailkapen mota
asko daude eta beraiek, Sareinak-ekoeak pro-
posatzen dutena, beste bat da, generoaren arabe-
rakoak. Baina hortaz gain, bada emakume idazle
ikusezinaren ideia (Haur eta Gazte Literatura-
ren kasuan Manu Lopez Gasenik, Pamiela,
2006, aipatzen duen bezala). Ikusezintasun horri
ere erantzun nahian, neurri batean, idatzi zuen
Ana Urkizak arestian aipaturiko liburua, hitzau-
rrean ageri den bezala:

Urteak ez dira alferrik pasatu, ordea, eta
emakumezko idazleen egiez konturatu naiz.
Normaltasun eta modernotasun itxura eman
nahi duen sistema oraindik helgabea dela iru-
ditzen zait euskal literatura, barruan harra bizi
duen sagar berde erakargarria bezalakoxea.

Horrela bada, elkarrizketa hauen bidez,
bi helburu lortu nahi izan ditut: batetik,
egungo euskal literaturaren kononaren ba-
rruan sartzekoak diren emakumezko idaz-
leak badaudela jakitera eman eta zeintzuk
diren agerrarazi eta, bestetik, euskal literatu-

raren kanonaren inguruan egonezina sorra-
razi, ohikoak diren galderei ahotsa jarritz.
(Urkiza, 2006: 10)

Ana Urkizak *Bost idazle Hasier Etxeberria-
rekin berbetan* liburuan ageri ziren idazle guztiak
gizonezkoak zirela ikusirik, *Lo mío es escribir*
Anna Caballeren emakume idazleen antologia
kontuan izanik eta eguneroko gertakarietan
(Jaka beketako argazkian bederatzi irabazleak
gizonezkoak agertzea,...) emakume idazleen pre-
sentzia urriaren aurrean liburua egitea erabaki
zuen. Jakina, helburua hori izanik eta elka-
rrizketatuen eta kazetariaren arteko sinpatiarene
ondorioz presente dago emakume eta idazle iza-
tearen inguruko kezka; horren lekuko ditugu
Urkizak idazleei eginiko galderak: “Zer alde
dago gizonezkoaren eta emakumezkoaren
artean?”, “Ze herentzia jaso du emakumeak
idazle bezala, alaba bezala...?”, “Emakumezkoak
zer ekarri dio euskal literaturari?”, “Emakume-
tasunetik idazten duzu?”, “Emakumezko idazlea
idazle publikoa dela esango zenuke?”, “Emaku-
mezko idazlea, idazten duenean, askea dela
esango zenuke?”...

Baina agian, hori guztia argiago islatu zen
liburuaren prentsaurrekoan Ana Urkizak esan-
dakoetan: “Euskal literaturaren sisteman ema-
kumezkoak falta dira, eta daudenean horien
presentzia justifikatu egin behar da.” (DV,
2006-12-4, 88).

Geroago, baina, liburuan bertan badira egoera –gizon eta emakumeen presentzia– normaltze prozesuan ikusten duten idazleak:

Kanpora begira, ordea, emakumeek egingdako literatura inoiz ezagutu ez duen garrantzia eta garapena ari dela hartzen esango nuke. Literatura feminizatu egin da, irakurlea ere, neurri esanguratsu batean, emakumezkoa da eta idazle asko euren literatura feminizatzen saiatu da: kontzienteki edo ez kontzienteki. Susmoa daukat, beraz, joera aldatzear dagoela eta literatura, gero eta gehiago, emakumeen eskuetan geratuko dela.” (Urkiza, 2006: 112)

dio Mariasun Landak gai honen inguruan; eta antzeko zerbait ikus dezakegu Lourdes Oñaederraren hitzetan ere emakumeen presentziaz ari denean:

Nik linguistika munduan ikusten dut. Kongresuetan gabiltzalarik, urterik urtera, emakumezkoen presentzia eta egiten ari den lanen kalitatea ikaragarri gorantz doa. Beraz, utziz gero, aukera irekiz gero, eta presentzia eta partaidetasun hori gure irudimenean, bakoitzarenean eta kolektiboarenean, naturaltasunez sartzten denean, uste dut etiketa horiek aldatuko direla. (op. cit.: 262)

Baina zein da emakumearen ikuspegia literaturan? Zer irudi islatzen du? Guk geuk, arlo txiki batean, euskal haur eta gazte literaturan

urtebeteko produkzioa aztertu dugu bertan ageri zaigun emakumearen papera ikusteko.

HGL eta eskolaren arteko harremana ezaguna da, baita haurren garapenerako eta heziketan duen garrantzia edo irakaskuntza sisteman emakumezkoen presentzia handia; horregatik guztiagatik badirudi arlo honetan bestetan (helduen literaturan, komunikabideetan, edo beste hamaika kontutan) baino gehiago zaintzen direla testuak eta irudiak (azken arlo honi buruz, esparru honetan duten garrantzia ikusirik, aurrerago arituko gara); hala ere, hainbat datu eta parametro aztertu ondoren harriturik gertuko gara.

Har dezagun urte bateko produkzioa, 1994koa, eta bertan euskaraz sortu berriak ziren liburuak kontuan izanik (38) ikusiko dugu emakume idazleak 3 izan zirela eta gizonezkoak 20; produkzioari dagokionez 8 liburu idatzi zuten hiru emakume horiek (Piedad Ateak 6, Mariasun Landak bat eta Yolanda Arrietak beste bat) eta 30 gizonezkoek.

Dena dela, eta egilea nor den garrantzitsua izanik ere, badira liburuen eta literatura horren joera hobeto islatzen dituzten beste datu batzuk. Protagonistak, esaterako. Aipaturiko 38 liburu horietan gehiengo nabarmena da gizonezko protagonista dutenak (%60,6), emakumezkoen aldean (%18,2). Gainerakoetan, gizon-emakumeak dira protagonista (%21,2). Nabarmenegiak ote

dira kopuru hauek? Inguruko beste literaturetan baino ikuspegi matxistagoa al dugu?

Teresa Colomer irakasleak 150 lanen inguruko ikerketa egin zuen, eta bertan protagonisten honako banaketa hau atera zuen:

Protagonista nagusia:

Emakumezkoa: %29,5 gurean %18,18

Gizon-Emakume: %7,7 gurean %21,21

Gizonezkoa: % 62,8 gurean %60,61

eta Association Européenne du côté des filles delakoak (1998a), berriz, irudi liburuetakoko 2.396 protagonisten gainean eginiko azterketaren banaketa hau atera zuen:

Protagonista nagusia

	Frantzian	Espainian	Gurean
Emakumezkoa:	%39, -%40,4	%43-%45	%18,18
Gizonezkoa:	%60,3 -%59,6	%57-%55	%60,61

(Frantzia eta Espainiako datuetan lehenengoa haurrei dagokie eta bigarrena helduei; hots, haur eta helduen arteko bereizketa egin da).

Literatur obren protagonisten inguruko beste azterketa ezaguna Princetowngo Unibertsitatean (AEB) 1971an eginiko ikerketa dugu; bertan honako emaitzak agertu ziren:

Protagonista mutila 881 ipuinetan (%75)

 neska 344 ipuinetan (%25)

Kasu batean nahiz bestean argi eta garbi geratzen da euskarazko produkzioan ere, beste herrialdeetan bezala, askoz txikiagoa dela emakumezko presentzia protagonista nagusien artean.

Idazlea eta protagonistaren generoa ikus-teaz gain, aspektu gehiago azter daitezke. Esan-guratsua eta argigarria da, esaterako, liburuetan ageri diren protagonisten lanbideak (lan bana-ketaz eta prestigioaz transmititzen duten ideia-rengatik).

1994an euskaraz sorturiko liburuen artean 17 lanbide daude emakumeen kasuetan eta 95 gizonezkoenetan. Oraindik ere etxetik kanpoko lana (etxe barrukoa ez baita sarritan lanbide gisa hartzen) gizonezkoa omen da nahiz eta gure gizartean –eta ez dugu ahaztu behar duela urte gutxi argitaratutako obrei buruz ari garela– gero eta emakume gehiago aritu lanean etxetik at.

Baina lanbideen kopuruan desoreka hori bada ere, hauen mailen artean oso ezberdintasun nabarmenak daude. Esate baterako, boterea gizonen eskuetan dago. Alkate guztiak (6) gizonezkoak dira, horrez gain kapitainak (2), gobernadorea (1), zuzendariordea (1) edo erretorea (1) gizonezkoak dira. Alegia, aztertutako kor-pusean ageri ziren boteredun kargu guztiak.

1994ko produkzioaren azterketa labur honek argi eta garbi adierazten digu zein nolako irudia transmititzen den euskal haur eta gazte

literaturan. Protagonista nagusiak gizontzkoak dira, boterea beraiek dute eta lanbide edo jorkabide erakargarrienak gizontzkoen esku daude.

III. Indarkeriaz eta gatazkaz

Azken urte hauetan euskal gizartea, eta zoritxarrez ez bakarrik gure gizartea, indarkeria egoera batean aurkitzen da. Hamarkada batzuk daramatzagu arazo politikoak direla eta, gure artean tiro hotsa, bonbena eta torturatuen oihuak entzuten. Baina gure indarkeria hurbil honetaz gain gerrena ere aipatzeko modukoa dugu; urruti gertatzen direnak baina egunero ikus ditzakegunak telebistan, edo gure lurretan aspaldi jazoak: karlisten garaikoak, 1936ko gerra, gerra handiak,...

Jakina letretan, modu batean edo bestean, agertu ohi dira horrelako egoerak, dela istorio bat girotzeko, argumentuaren oinarria duelako, ... Badira, gainera, bestelako bortxakeriaz ari direnak, nahiz eta isilean eta ia-ia oharkabean islatu, inmigrazioaren tragediaz ari direnean, esaterako. Hor dugu, adibidez, Patxi Zubizarretaren *Eztia eta ospina* (Alberdania, 1995) nobela

interesgarria, Marokotik Parisera doan gazte baten istorioa kontatzen duena, tartean Bidasoa ibaia zeharkatzen jazotako tragedia.

Beste lan batzuetan, aldiz, idazlanaren paisaian agertzen da bortxakeria. *Kandinskyren tradizioa* (Erein, 2003) R. Saizarbitoriaren nobela laburrean, esaterako protagonista biak, Miren eta Aitor, ohean daudela eztanda bat entzuten dute:

Kanpotik jasotzen nituen bizitza seinaleei belarri erne jarrita nengoen, neure burua denboran orientatu nahian, ziurrenik, eztanda ikaragarri hura entzun zenean. Ohea bera ere dardaratu egiten zela iruditu zitzaidan. (Saizarbitoria, 2003: 67),

eta, geroago, guardia zibilen kontrola ikusiko dute:

Autoan ere ez genuen asko hitz egin. Hoteletik ehunen bat metrora Guardia Zibila kontrol bat jartzen ari zen baina ez gintuzten gelditu. (op. cit.; 72).

Gertakariak paisaiaren parte dira, Mirenen kezkek, sentimenduak, zalantzak ditugu nobelaren ardatz, baina Euskal Herrian gertatzen denez indarkeriaren hatzaparrek ukitzen gaituzte. “Nik uste dudanez, egia azaldu behar dugu” zioen Saizarbitoriak H. Etxeberriak eginiko elkarrizketa luzean (Etxeberria, 2002: 273.), “Hori da gure lana, (...). Guk egia esan behar dugu beti. Horixe da idazlearen konpromisoa.”

Eta idazleen betebegar horretan aldaketa nabarmena gertatu da, edo kezka nabarmena dago azken urteotan euskal letretan. Kortazarrek dioen bezala (2003: 60, letra etzanak gureak dira):

Existe en la literatura vasca un momento especial de aproximación al realismo. *La presión del contenido ideológico sobre la literatura escrita en euskara siempre ha sido muy fuerte.*

Eta konpromiso hori linguistikoaz harata-gokoa da, izan ere ugariak dira gure herrian bizi dugun indarkeriaz ari diren lanak, asko horretaz gogoeta egitera animatzen gaituzten testuak. XXI. mendearen hastapenetan honen adibide ugari ditugu: Mikel Hernández Abaituaren *Ohe bat ozeanoaren erdian* (Erein, 2001), Xabier Montoiaren *Denboraren izerdia* (Elkar, 2003), Anjel Lertxundik idatzitako *Zorion perfektua* (Alberdania, 2002), B. Atxagaren *Soinujolearen semea* (Pamiela, 2003) argitaletxe ezberdinetan kaleratutako obra batzuk aipatzearen. Jakina, lehendik ere izan dira Euskal Herriko gatazka politiko eta armatua ardatz izan duten idazlanak, Saizarbitoriaren *100 metro* ezaguna litza-teke aitzindaria, baina hor daude egile beraren *Hamaika pausu* (Erein, 1995) edo *Gorde nazazu lurpean* (Erein, 2000); *Exkixu* (Elkar, 1988), Txillardegik idatzia, Hasier Etxeberriaren *Mugetan* (Elkar, 1989), Sarrionandiak eginiko *Lagun izoztua* (Elkar, 2001) edo Itxaro Bordaren *Hiruko* (Alberdania, 2003) estilo ezberdineko batzuk

aipatzearren. 2004ko Euskadi saria jaso zuen *Bizia lo* (Alberdania 2003) liburuaren barneko azalean agertzen den komentarioa oso adierazkorra da egungo euskal literaturaz:

Euskal gatazkaren hariak bizi-bizi ageri dira agertokiaren atzeko oihal, baina ez da gatazkari buruzko liburu bat. Arazo horrekin ere bizitzen ikasi dugun gizakiei buruzkoa baizik.

Ziur gaude komentario horrek balio duela euskal liburugintzako obra askori buruz hitz egiteko. Izan ere, Gotzon Barandiaran idazleak Volgako Batelariak bloogean (www.eibar.org/blogak/volga) euskal gatazkari buruzko helduentzako 36 liburu aipatzen ditu; horri, jakina, haur eta gazte literatura liburuak gehitu beharko genizkioke.

Joxerra Garziak gazteentzat idatzitako *Tunelaz bestaldean* (S. M., 2000) lanean, esaterako, presoen gaia ukitzen du zeharka. Nobelako protagonista, Martin, ama urrutiko kartzela batean duen mutila dugu, eta gertakari horrek, jakina, eragina izango du bere eguneroko bizitzan. Ez da gatazkari buruzko liburu bat, baina agertokiaren atzeko oihala bai da gatazka, edo oihaletako bat. Eta oihal horretara hurbiltzen den irakurlea egoera horretaz kontziente egiten da, jabetu egiten da gure herrian badela drama humano isila, etxetik milaka kilometrotara ama

edo aita preso duten neska-mutilen drama. Eta antzeko zerbait esan daiteke *Ainhoari gutunak* (Elkar 1990) Sarrionandiaren ipuinari buruz.

Azken obra horri buruz hitz egitean, honako hau dio Marijo Olaziregik:

This is a fictional text in the form of a collection of letters which the narrator, who is a fugitive from justice, writes to a girl named Ainhoa, the daughter of the family that hid him during his flight from the police. The content of the letters is varied and includes in addition to very short stories, observations on movies, books and classic characters... and also touches on the situation of the jails where there are Basque political prisoners. The narrator uses the term “war” to refer to the Basque conflict (p. 8) and mentions the Basque “children of war” who are born in prison (p. 43) (...) There is not doubt that *Letters to Ainhoa* has special significance for the Basque reader” (Olaziregi, 2006: 88).

Marijo Olaziregik artikuluaaren amaieran indarkeriaren gaia fikzio bihurtzeko izan dugun gaitasuna aipatzen du. Eta fikzio horretan indarkeria edo indarkeriaren oihala modu askotan ager daiteke. Atxagaren *Sara izeneko gizona* (Pamiela, 1996) edo Pako Aristiren *Din, dan, don... kanpai-lapurrak non?* (Elkar, 1996) liburuak, esaterako, karlistadetako gerretan kokaturiko

abentura edo misterio liburuak ditugu. Lehenengo espia liburua dugu, garai hartako espiona, baina asteasuarrak ederki aprobetxatzen du aukera indarkeriaren kontra eta gerraren zentzugabekeriaz mintzatzeko:

kanpamendu militar bihurtutako Irurtzungo kale batean, bi gizonak hil ala bizi borrokatzen zuten. Zertan ari ziren pentsatzen gelditu izan balira, argitasun une bat izan balute Don Carlos edo Maria Cristinarekin inolako zorrik ez zutela konprenitzeko, beren jeneral edo kapitainei ere ez zietela ezertxo ere zor, zor bakarra beren buruarekiko, beren biziarekiko zutena zela, hartara, nola batak hala besteak segituan borrokatzeari utzi eta, elkarrekin barre eginez, mugako bidea hartuko zuketena. (Atxaga, 1996: 29).

Izan ere nobela askotan, idazlan ugaritan, paisaia edo argumentu erakarria erabiltzen da beste kontu bati buruz hitz egiteko. Kortazarrek dioenez (2002: 88) karlistada metafora da,

Idazlez idazle desberdina izango da zentzua, baina zentzu nagusi bi asma ditzakegu: aurrena gaurko egoeraren metafora, gaurko garaiaz hitz egiten da beste garaia adieraziz, karlistadak aipatuz gutaz hitz egiten dugu; ondoren, gatazka beraren metafora.

Argi dago, Atxagak horrela egin duela, eta sarritan bezala kontu ugariri buruz hitz egin

nahi izan digula bere obran. Bada, honetan, argumentua erabiltzearena beste gai bati buruz hitz egiteko, anekdota bitxi bat idazle asteasuarra protagonista duena. Duela urte batzuk *Gizona bere bakardadean* liburua orrazten ari zela, ezagun bati galdetu zion nobelari buruzko iritzia. Denok dakigun bezala intriga eta suspense puntu bat du Atxagaren nobelak eta suspense egoera horrek gora egiten du orriak pasa ahala. Kontua da orrazten eta komentatzen ari ziren borradore hartan, azken afarian, Karlos protagonistak hoteleko neska batekin duen afarian, luze eta zabal hitz egiten zutela... hainbat konturi buruz. Hain luze eta zabal non afariak orrialde pila bat betetzen zuen. Lagunak, orduan, afariaren luzeaz egin zion oharra idazleari; irakurlearen sufrimendua luzatzen zuela afari lagunen elkarrizketako beste gai haiek zirela eta. Atxagak, orduan, erantzun zion berari benetan interesatzen zitzaiona ez zela Karlos harrapatzen zuten edo ez, baizik eta beste gai haiei buruz hitz egitea, gizakion sentimendu arruntei buruz, koketeriari buruz, esaterako. Edozein modutan, azkenean, laburtu egin zuen pittin bat afari hura.

Gazteentzako lanen artean ere eguneroko indarkeria agertu izan da. Hau da, garai edo giro zehatz batean kokaturiko istorio errealistetan agertzen dena. Javi Cillerok idatzitako *Eddy Merckxen gurpila* (Erein, 1994) ipuinean, esaterako, frankismoaren garaiko egoera islatzen da; kanpotarrekiko mesfidantza dugu horren isla:

Garai hartan jende olde handi bat etorri zitzaigun auzora eta batzuei barrenak estutu zitzaizkien, beldurrez auzoak bere jatortasuna galduko ote zuen kanpotarren etorreragatik. Pare bat auzokide kartzelan zeuden eta usain txarra hartzen genien ezezagunei, poliziaren txibatoak zirelakoan. (Cillero, 1994: 7).

Protagonista, eta narratzailea, gaztetxo bat da, baina Joxe inmigranteren istorioa ere agertzen da. Azken honen atxiloketa erabat injustuak garaiko egoera zapaltzailea islatzen du, eta irakurlea diktaduren eta honen zapalketa injustuaren kontra bultzatu.

Arestian aipatu bezala badira gatazkaren egoera literatura lanaren paisaia bezala aurkezten dutenak, antzinako gerrateak ere erabili dira indarkeriaz hitz egiteko... baina horien ondoan baditugu gatazka narrazioaren muina diren obrak. Gazteentzako liburuen artean *Txakurra-ren alaba* (Elkar, 2000), X. Mendigurenek idatzia, edo Juan Luis Zabalaren *Harri barruko bihotz-borrokak* (Elkar, 1999) aipa ditzakegu; helduen literaturan, aldiz, badira askoz gehiago. Agian, azken hauen artean bitxiena, zuzenena, Mikel Hernandez Abaituak idatzitako *Ohe bat ozeanoaren erdian* (Erein, 2001) dugu. Liburuko hainbat eta hainbat pasarte, gogoeta eta komentario borroka armatuan ari den norbaiti pertsonalki zuzendurik daudela ematen du:

Lehen esan dudan bezala, lortu al du independentzia ETAk hogeita hamazazpi urteko borrokarekin, ehunka militar, polizia, hiritar arrunt, kazetari, politiko, guardia zibil eta disidente hilez? Ez. Orduan, zertarako jarraitu horrela? Egoscorkeriari eus-tearren? Herri gehiena aurka duzue, (...) Bai, bazekiat ez garela bizi demokrazia perfektu batean. (Hernandez Abaitua, 2001: 87).

Irakurlea ohartu den bezala idazleak hartzaile bati hitz egiten dio, argi eta garbi, literatura maite duen hartzaileari, protagonistaren ezaguna dena... agian idazlearen taldekidea izan zena biek 20 urte zutenean eta literatura aldizkarietan aritzen zirenean.

Azken urteotako idazlanetan, indarkeriaren gaia agertu denean euskal letretan bi modutan agertu izan da. Alde batetik aspaldiko garai batean kokaturik agertu izan da (*Sara izeneko gizona* idazlanean ikusi dugun bezala), edo bestela oso modu orokorrean aipatuta, Igerabidek eta Linazasorok idatzitako poema hau lekuko:

Gaur sesioa izan dugu: intsumisoaren eguna.

Gerrara baldin bazoaz, zoaz.

Baina utz ezazu alde batera Jainkoa,
eta Herria, eta Justizia...

Bi hitz soilik daramatzazu zeurekin:

Mendekua eta Garaipena.

Bi hitz bakarrik dauzkazu zain:

Hondamendia eta Errua. (Igerasoro, 1998: 61)

Beste aldetik, azken garaian –azken 20 urteotako zehaztuko nuke– indarkeria egoeraz gogoeta egiteko moduan edo helburuz hitz egin da. Honetan ere bi ideia nagusi izan dira, alde batetik, eta gero eta indar gutxiagorekin, Euskal Herriak jasan edo jasaten duen zapalkuntza ideia adierazteko, *Pike eta Pitito* (Txalaparta, 1994) liburuan agertzen den bezala, bertan Pike umeak honako elkarrizketa hau du manifestazio baten zergatiaz galdetu ondoren:

–Lagun batzuk preso dituztelakotz, hemendik oso urrun, eta ezin ikusi...

–Eta argiak?

–Hori polizia duxu.

–Gaixtoak dira?

–Zuk zer uste duxu, Pike? (Agurraza, 1994: 58. orr.)

edo liburuan bertan, Olentzero kanta ezagunaren bertsio berri hau dela eta:

Olentzero, begi gorri,
Hik ekarri duk Eguberri,
Baita ere zonbat irri,
Alaitzeko Euskal Herri,
Ez egon triste, ez larri,
Bizia duk miresgarri,
Itxaropena piztuz gogoan,
Libertatea duk sarri. (op. cit.: 38-39)

eta bestetik indarkeriaren zentzugabekeria (aurretik aipatu izan den bezala) edo borroka armatuaren kaltea adierazteko:

Ederretsi egiten duzue heroismoz edo justizia-gosez jantzirik aurkezten zaizuen gutzia. Zuen adinean normala da; hala behar du, gainera. *Kontuz, ordea, ongia eraikitzeke gaizkia baliatzen dutenekin*: heroikotasunaren itxura ematen bazaio, gezurra errazago irensten da egia baino. (Lertxundi, 2002, 90, etzana gurea da).

Petri irakaslearen hitz horiek ederki islatzen dute indarkeriaren kontrako ideia; heroikotasun faltsua azalerazteko asmoa nabari da idazle zarratarraren obran. Beste batzuetan, aldiz, mundua bi koloretan ikusten dutenei eginiko kritika ikus daiteke; *Kaixo Kattin!* obran, esaterako, honako pasarte hau dugu:

Nire gurasoak kanpotarrak dira, baina gure herrian ederki integratuak. Biek ikasi dute euskaraz (...) Eta Ainhoarenak ere ez. Hemengoak, hemen jaioak, zazpi apelliduak euskaldunak, baina gaztelaniaz hitz egin.

“Ukabila gora jaso eta garrasi egin euskararen alde, baina beraiek espainolez egunero, lotsa gutxirekin. Espainolak horiek dira, horiek, eta ez ni. Horiek gazteleraz hitz egin beharraren errua ez du Madrilek, gero! Ezta Gasteizek ere. Horren errudunak, beraiek dira”. (Kazabon, 2003: 52-53).

Baina, agian, azken urteotako egoera ondo islatzen duen pasarte dugu Koldo Izagirrerekin Hasier Etxeberriak izaniko elkarrizketa, bertan indarkeriaz mintzo dira eta Izagirreren hitzek laburbiltzen dute euskal letretan une honetan jasotzen den ideia nagusia, borroka armatuak, egun, ez duela zentzurik gure artean.

Benetan uste dut biolentziaren ondorioak, egun, ez direla on aurrera egiteko prozesu politikoan. Momentu honetan ez dutela herriaren kontzientzia handitzen, baizik eta jaitsi egiten dutela.

“Ez daukat arazorik hori deklaratzeko. Biolentzia guztiak ez dira iraultzaileak, eta bada momentu bat indarkeria ez dena politikoki errentagarria ezkerrentzako, ez duelako gizartea hobeko aldatzen laguntzen. *Borroka da bidea* dio esloganak, baina bidean aurrera ezinik gabiltza, hain zuzen borroka mota horrek inobilismoa ekarri duelako”. (Etxeberria, 2002, 114).

Euskal letretan egungo indarkeriak duen pisua nabarmena da. Idazle nagusiek, obra garrantzitsuenek, hori islatzen dute. 2004ko Euskadi sarian finalista izan ziren bost obren artean hirutan ageri zaigu mundu hori, gure gizartea eta indarkeriaren arteko lotura. Estiloak, tonuak eta ikuspuntuak ezberdinak izan dira, baina *Bizia lo* ipuin liburua edo *Denboraren izerdia* eta *Soinujolearen semea* nobeletan euskal gatatzara

hurbildu ahal da irakurlea. Hurbiltzeko modua, gainera, aberastu egin da, Aritz Gorrotxategi epaimahaikideak idatzitako artikuluan zioen bezala:

Orain artean, gure literatura garaikide edo modernoan euskal gatazkara hurbiltzeko metodologia bat gailendu da. Idazleek, bortxakeriak eragindako ondorioei baino, gehiago erreparatzen zioten bortxakeriaren jatorriari, kausei alegia. Nolabait, hiltzailearen pentsamenduan barneratzea zen idazleen obsesioa (...) *Zorion perfektua*-n gatazkari begiratzeko modu etikoagoa aldarrikatu zuen Lertxundik. Bada, lekukoa hartu diote berriki Muñozek eta Montoiak. Egia esan, *Bizia lo* eta *Denboraren izerdia* bezalako liburu- en premian geundela esango nuke. Biak dira obra biribilak. Berritzaileak, ausartak eta deserosoak. Iragana ahaztu gabe, gaurko errealitateari begira jartzen gaituztenak. (...) Gatazkan baino, gatazkak inguratuta bizi diren pertsonaia sinesgarriak eraikiz. Gatazkaren barnean, finean. (*Berria*, 2004-10-19, 40).

Azken urteotan gure literaturan indarkeriak duen lekukotasunaren arrazoiak ugariak izan daitezke; alde batetik justifikatzeko modu bat bilatu da, beste batzuetan kontrakoa, gaitzes- teko aukera; baina horiekin batera gaiari buruz, borroka armatuari buruz hitz egiteko askatasun handiagoa dagoela –kritikatzeko bederen, baina

lehen ezta horretarako ere— onartu behar dugu. Aingeru Epaltzak *Berrian* dioen bezala:

Itxoin behar dugu 90eko hamarkada arte gure literaturan euskal ekintzaile bat ikusteko norbaiti garondoa bizkarrez tiro egiten. 90eko urteetan, hala ere, kasik barkamena eskatu behar izaten zenuen gauza batzuk idazteagatik. Biolentzia instituzionala gutierrez ere neurri berean agertu behar zenuen zure liburuan, bertzea aipatzeko eskubidea irabazi ahal izateko. Gaur libreago zara. Halakorik ez da. (*Berria*, 2005-05-29, 40).

Izan ere Jokin Muñozek DVn 2004ko urriaren 15ean esan bezala: “somos tres generaciones marcadas por la violencia de ETA, que hemos vivido en este contexto de violencia política.”, eta jakina, egoera horrek markatzen du idazlea.

Honen guztiaren ondorio zuzena izan da, esaterako, *Maldetan sagarrak. Euskal gatazka euskal literaturan* (UEU, 2006) liburua. Izenburuak berak adierazten duen bezala euskal gatazkari buruz 2005ean Miarritzen egin zen ikastaroa jasotzen duen liburua. Bertan Jokin Muñoz, Itxaro Borda, Harkaitz Kano, Aingeru Epaltza, Hasier Etxeberria, Mikel Hernandez Abaitua, Jon Benito, Aritz Gorrotxategi, Markos Zapiain eta Aitzpea Azkorbebeitiaren ekarpenak jasotzen dira, bakoitza bere iritzi eta bere ideiak azaltzen. Liburuaren koordinatzailetako batek, Ibon Egañak, plazaratu bezala (*Argia*,

2077. zenb., 37), indarkeriaren aurrean hartu beharreko jarrera etikoaz ari dira batzuk, “gure istorioak” kontatzen beste batzuk, bakoitza bere konpromisotik... izan ere, aldizkariaren zenbaki berean A. Lertxundi idazleak aipatu bezala, “biktimak izan gara eta biktimak gara euskaldunok, baina baita borrero ere, ez gaude borrero izatetik txertaturik.” (op. cit.: 33).

Indarkeriaren presentzia, baina, ez da helduen edo gazte literaturako kontua bakarrik, hau literaturako maila guztietan aurki dezakegu, arestian aipaturiko obra horien guztien ondoan ditugu, esaterako haur txikienezako *Joxeme gerrara daramate* (Elkar, 1992) gerraren kontrako eta intsumisioaren aldeko ipuina. Umorea eta parodia darabiltza Xabier Mendigurenek haurrentzako ipuin horretan, baina irribarre horren azpian edo atzean militarismoari eginiko kritika zorrotza aurki dezakegu. Eta gauza bera gertatzen zaigu, baina beste maila batean, haur txikiagoentzako den *Marigorringoak hegan* (Edebe-Giltza, 1994), bertan herrian dagoen lehorte ikaragarriari amaiera emateko tximeleta bat hitzeko aukera eskaintzen zaio protagonistari. Tximeleta hil ezkerro, zerua tristatu eta negar egingo du. Hots, helburuak justifika dezake baliabidea. Zubizarretak, aldiz, tximeletari askatasuna ematen dio, eta lehortearen konponbidea beste bide batetik dator. Adibide xume eta apalak dira, baina azken urteotako kezkaren adieraz-

garri garbiak. Izan ere, gai gutxik izan dute gure letretan azken hamar-hamabost urteotan hainbeste idazlan, indarkeriaren inguruko kontuek izanikoak beste.

Indarkeriaren gaia nola islatzen den eta nolako ideiak transmititzen diren gure letretan atal honi amaiera emateko azken adibidea aipatuko dugu: Patxi Zubizarretak idatzitako “Usoa” bilduma. Hasieran ipuin labur bat izan zen (*Usoa, hegan etorritako neskatoa*, Erein, 1999) eta ondoren bilduma osatzen duten liburuak. Guztiek dute protagonista bera: Usoa; eta Afrikatik etorritako neskaren istorioa jakitean ezagutuko dugu gerraren drama:

Zure hemengo etxera ekarri zintuztenean, gutun hori zen zure ekipaje guztia, zure ekipaje bakarra. Eta gutuna irakurtzea, zerura begiratzea bezain atsegin duzu.

Antzina, gosete handi batean, gure aitonaren aitonak elefante bat hil behar izan zuen. Haren haragiari esker, gure etxean ez zen inor hil. Eta marfilezko bi letaginak beti altxor bat bezala gorde izan ditugu.

Urte askoren buruan, amona gaixotu zelarrik, letagin bat saldu behar izan genuen aztiari eta ospitalekoei ordaintzeko. Eta orain bigarrena saldu behar izan dut, zeren gure herrian gose handia eta gerra piztu baitira.

Eta alaba txikia eta letagina bizkarrean harturik, hirira joan naiz. Aireportua bonbardatu baino lehen, letagina saldu eta diru ho-

rrekin hegazkin txartel bat erosi dut, baina ez dakit norako. "Jatekoa eta bakea duen herri baterako", esan diot txartel saltzaileari. Alaba txikiari esan diot bidaia luze bat egingo duela, eta lurreratutakoan, osaba batek itxarongo diola. Ez da egia, baina bera poztu da eta nik zinez espero dut norbaitek jaso eta zaindu egingo duela.

Bere izena Kasai da, eta ene begininiak baino maiteago dut. Otoi, zaindu Kasai! (Zubizarreta, 1999: 20-22.).

Gutun hunkigarriak bi ideia transmititzen dizkigu, batetik amaren maitasuna, eta bestetik, maitasun horren gainetik gerraren krudelkeria, ama amodioagatik alaba horrela abandonatzera bultzatzen duen gerra.

Usoa, baina, gure gizartean erabat integratuta eta gustura bizi den neska dugu. Bere lagunak, irakasleak, hemengo gurasoak... dituen neska, baina helduago egin ahala bere jatorria ezagutu nahiko du eta hor, *Karpeta morea* (Erein, 2003) nobelan, berriro itzuli da irakurlea hirugarren munduko egoerara. Gerra, gosea, esplotazioa... indarkeria mota zaharrak eta berriak; eta horiekin guztiekin batera krudelkeria: Usoak, karpeta morearen bidez eta gure lehen mundu honetako erosotasunetik jakingo baitu "aita gerran hil zitzaiola ("Antza haren gorpua lurperatu nahi izan zutelarik, hura hil zuten hiru balen prezioa ordaindu behar izan zieten soldaduei"); eta zortzi urterekin armak

hartzera behartu zuten neba espetxean zegoela” (Zubizarreta, 2003: 29).

Irakurlea, edozein izanik, ez da lehen bezala geratuko horrelako testuak, horrelako pasarteak ezagutu ondoren. Eta hain zuzen, modu poetiko, ederrean, kontaturiko istorio horiek horixe bilatzen dute, irakurlearen bihotza ukitzea, baina baita burua ere. Hots, gogoeta bultzatzea eta ideia batzuk transmititzea.

Jakina, testu guztiek ez dute zertan horrelakoak izan behar, oso bestelakoa da Joxean Sagastizabalek idatzitako *Gerturik daukagu odola* (Pamiela, 1999). Umorezko nobela honean topiko askoren kontura egiten baitu barre irakurleak, baita borroka armatua bera ere, euskaltegiatako irakasleak langabezian geratzen direnean, baina, arestian aipatu bezala, beste testu mota baten adibidea dugu hau. Gai serioak seriooki trata daitezkeen bezala, umorearen bidez ere uki ditzakegulako. Baina modu batean nahiz bestean, guztiaren atzean duguna gai batzuei buruzko gogoeta nahia dugu. Bilatua, bideratua, askea... gogoeta hori nolakoa izango den askotan idazlearen (eta ilustratzailearen) esku dago. Sarritan esplizituegiak baitira lanak, eta ondorioz literatura kalitate eskasekoak, baina, era berean, eta aurreko adibide ugari horren adierazgarriak dira, gertatzen da irakurlearengan gogoeta eragiteko nahi hori kalitate handiko obretan izatea.

IV. Irudiak ikusiz ikusten ez diren baloreak

Liburuen paratestuetan irudiak garrantzi handia izan dezake, sarri azala izan ohi da irakurlearen arreta erakartzeko tresna nagusia. Jakina, izenburua, edo egilearen nortasuna, kontrazalean agertzen den informazioa eta abarrek ere eragina dute. Oraingoan, aldiz, irudiari erreparatuko diogu. Euskal letretan irudi gutxi agertu ohi dira helduen literaturan; are gehiago ohikoa da idazleek arazoak izatea helduentzako lanetan irudiak sartzeko (idazleek, bakarrik ez, baita irudigile ugari, A. Olariagak kasu, behin baino gehiagotan aipatu izan dute kontu hori). Badira, dena dela, kasu berezi batzuk, *Barrikadak* (Alberdania 2003) dugu horietako bat, baina oso bakanak.

Euskal literaturgintzaren %50ean, aldiz, ohikoa da irudia. Haur eta gazte literaturan, hain zuzen. Haurrentzako liburuetan, zenbat eta txikiagoa izan hartzailea orduan eta pisu handiagoa du ilustrazioak; gazte literaturan,

aldiz, alderantziz gertatzen da, helduen liburu ez-ilustratuetara iritsi arte. Edozein modutan testua eta irudia dituen obra batean bi elementu horiek hartu beharko genituzke kontuan produktua aztertzerakoan, biek, hitzak eta irudiak mezuak igortzen baitituzte eta biak “irakurtzen” ikasi behar dugu. Beraz, literatura lanek transmititzen dituzten ideiak aztertzean irudiak ere presente izan behar ditugu.

Hainbat ikerketa egin dira arlo honetan, F. Orquinek, T. Colomerrek,... baina batez ere Adela Turinek eginikoak ditugu sakonenak, zabalena eta ezagunena nazioarte mailan. Association Européenne du Côté des Filles, 1994an Frantzian hezkuntzatik sexismoa desagerrarazteko eta sexismoaren aurka aritzeko sorturiko elkartearen bidez plazaratu ditu Frantzian eginiko hainbat saio, baina lan teorikoak ere baditu, *Los cuentos siguen contando* (horas y HORAS, 1995) ezaguna esaterako, eta batez ere, haur txikientzako albumak aztertu ditu.

Turinek, Hollindalek bezala, dagoena eta ez dagoena ikusi behar dela dio. Alegia, irudi bat—edo testu bat— aztertzerakoan irudian agertzen dena azaltzen zaigula, baina baita ere irudi horretan agertzen ez direnak ere kontutan izan behar ditugula. Haur txikientzako albumetan, esaterako, oso ohikoa da etxe barruko giroan aita ez azaltzea; hots, aita ez dago etxean... jakina, horrek zera adierazten du aitak etxetik

kanpo lan egiten duela, kanpoan dela lanean eta horregatik ez dela agertzen etxe barruan. Gauza bera gertatzen da abenturazko hainbat idazlanean gizon eta emakumeen paperak ikuskatzean emakumezkorik ez dagoela ikustean; abentura mutilen kontutzat hartzen delako; tradizioak –berdin da literarioa edo mitologikoa izan– paper hori, abenturazalearena, gizonezkoei egokitu dielako. Alegia, irudi horien bidez estereotipo batzuk bultzatzen dira: mutilak aktiboak, gogotsuak eta dinamikoak dira, neskak, aldiz, pasiboak, txukunak, lasaiak, ameslariak... batzuk errebeldeak, besteak mantsoak.

Antzeko zerbait gertatzen da irudien bidez islatzen diren lanbideetan... eta horregatik ez gaitu harritzen lehen hezkuntzako gelan neskak batek, helduan zer izan nahi zuen galdetzean, erantzun zuenak:

–Ni erizaina izango naiz, jendea sendatzea gustatzen zaidalako.

–Eta ez duzu sendagilea izan nahi? –galdetuzion, orduan irakasleak.

–Ez, sendagileak gizonezkoak dira eta neskak erizainak –erantzun zion neskak liburuetan ikusi bezala.

Izan ere, eta ondorengo orrietan ikusiko dugun bezala, gezurra ematen badu ere irudiek islatzen duten gizartea bizi duguna baino atzerakoiagoa da, bai rolen banaketetan, bai jarreretan, bai pertsonaien ezaugarrietan; eta horrek

gure gizartean poliki-poliki aldatzen (edo aldatu nahian) ari garen estereotipoak indartu besterik ez ditu egiten. Egia da, badirela mediku emakumezkoak eta irakasle gizonezkoak, baina ez gizartean duten portzentajearen pare inola ere ez. 1996an European Komisioaren babesaz plazaratu zen “¡Attention, album!” ikerketaren emaitzak oso adierazgarriak dira, emakume eta neskatoak diskriminatuak dira eta estereotipo sexistek jarraitzen dute gure literaturetan.



Enekoxki, Hasieider eta Ibabe. K. Santisteban; Jose Belmonte, Elkar, 1992

Liburuetako sinboloak

Haur txikientzako irudi liburuetan sinbolo batzuk izaten dira, modu batean edo bestean ideologia bat transmititzen dutenak, eta A. Turinek *Los cuentos siguen contando* liburuan aztertu dituenak. Sinbolo horiek, gainera, oso ideia argiak azaleratu ohi dituzte. Espazioarena esaterako; etxe barneko espazioa emakumezkoari dagokio eta kanpokoak gizonezkoari. Ohikoa da emakumea –edo neskatoa– leihotik kanpora begira egotea; mutila, aldiz, kanpoan egon ohi da jolasten. Leioa dugu beraz, sinbolo argi bat; erromantizismoarekin eta esnaturik egiten diren ametsekin erlazionaturik agertzen zaigu (emakume edo neska erromantikoak, pasiboak, versus gizon-mutil praktikoak, biziak). Ipuin herrikoietan preso zegoen printzesa genuen, leihotik begira egoten zena, edo bere “zalduna” izango zenaren zain egoten zen neska; orain, ordea, heroien esperoan egon gabe ere, nahiko arrunta da emakumezkoa –ama, alaba...– leihotik kanpora begira aurkitzea (neska ameslariaren irudia, haur literaturako topikoa den irudia, bultzatuz). Jakina, horrek espazioaren muga indartzen du, etxe barrua (eta etxe barruko lanak) emakumezkoarena da, eta kanpokoak (espazioa, baina baita ere kanpoko betebeharrak) gizonezkoarena.

Bada arestiko ideiak hauek –eta gizon eta emakumeen papera zein den– argitzen duen

irudi liburu bat, *Tunela* (Hiria, 2003) Anthony Browne irudigile ezagunak egina. Bertan bi anai-arreba ageri dira “erabat ezberdinak” testuak eta, batez ere, irudiek erakutsi bezala. Neska formal, ipuinak irakurtzen etxean... mutila bihurria, kanpoan ari dena baloiarekin eta arreba beldurtzen gauetan. Egun batean amak, “pazientzia galdua” elkarri zirika aritzen zirelako, kalera bidaltzen ditu eta mutila tunel batean sartzen da. “Neska beldur zen eta tunelaren kanpoan gelditu zen. Anaiaren zain. Zain eta zain, baina mutila ez zen ageri. Eta malkoak begietan zituela tunelera sartu zen anaiaren bila” (Browne, 2003: 16). Tunelaren bestaldean, baso beldurgarrian neskak anaia ikusten du harrizko irudi bilakatuta, besarkatu eta pixkanaka mutila mugitzen hasi zen. “-Lorea! Banekien nire bila etorriko zinela” esaten dio mutilak neskari eta etxerako bidea hartzen dute korrika. Mutila bihurria, mugitua, dugu; neska, aldiz, amatiarra, kontsolatzailea... amaieran, irakurleak ikus dezake Lorea eta bere anaia ezberdinak izanik, osagarriak direla, biek dituztela beren ezaugarriak, baina hala ere antzekoak ere badirela:

Ettxera heldu zirenean ama mahaia jartzen ari zen.

–Kaixo, –esan zien– oso isilik zaudete. Ondo al zaudete?

Loreak irribarre egin zion anaiari.

Mutilak irribarrea igorri zion arrebari. (op. cit.: 28)

Aurretik komentatu izan dugun espazio banaketaren ideia hori indartzeko animalien identifikazio bitxia ere egiten da. Katua emakumezkoekin lotzen den bitartean txakurra gizonezkoekin egiten da; hots, kanpoan, korrika, espazio handiak behar dituen alde batetik eta etxean, lasai, bere txokoarekin konformatzen dena, bestetik. Baina horrez gainera animalien identifikazio horretan badira bestelako ideiak ere, txakurra fidela eta laguna den bitartean –ezaugarri onak gizonezkoekin erlazionatuz–; katua (emakumezkoa) traidorea, bakartia, berekoia omen da (eta hain zuzen, horrelakoak izan ohi dira herri ipuinetako gaiztorik gaiztoenak... emakumezkoak!).

Adela Turinek arestian esaniko liburuan aipaturiko beste sinbolo bat amantala dugu. Honen esanahia oso argia da, amantala duena etxeko lanak egiten dituen pertsona da. Eta, gaur egun zenbait gizon ikusten badira ere amantalekin, oraindik orain amantala etxekoandreakin identifikatzen da. Are gehiago, zenbait kasutan etxetik at ere amantala eramaten da emetasuna markatzeko (animalien ipuinetan, esaterako, hauxe izan ohi da harra eta emea bereizteko modu arruntena, eta hainbat liburutan amantala dugu emakumearen jantzi arrunta... baita etxetik kanpo ere, nahiz eta azken garaian

amantala erosketarako karroak edo umearen kotxetxoak ordezkatzeko duen gero eta sarriago).

Betaurrekoena ere irudietan ageri den beste sinbolo bat dugu. Gizonezkoen (edo mutilen) kasuan inteligentziarekin loturik agertzen den elementua. Bizkorra eta azkarra dena dugu betaurrekoduna; baina hau neska baldin bada azkarra izateaz gain itsusia izango da. Antza, irudi liburuetan ezinezkoa da betaurrekodun eta polita izatea; neska inteligenteak ez omen dira politikak (eta, ideia horri buelta emanaz, neska politikak ezin dira izan azkarrak).



Sudur puntan munduan. J. Garcia; A. Olariaga.
Alberdania, 1994

Irudi liburuetan modernitatea, bizitzan parte hartzeko gogoia eta interesa erakusten duen sinboloa egunkaria da. Normalean gizonezkoek irakurtzen dute egunkaria (emakumezkoen bat irakurtzen agertzen bada aldizkariak edo nobelatxoren bat izango du). Hots, eguneroko bizitzan parte hartzaile eta, alde horretatik eraginkorrak, gizonezkoak dira. Eta askotan aitak egunkaria irakurtzen duen bitartean ama edo alaba (edo biak) etxeko lanetan ikus dezakegu, liburu honetako lehenengo atalean *Maripertxenta* liburuko irudian edo aurreko irudian ager den bezala.

Eta azkenik kartera edo maletatxoa aipatzen zaigu sinbolo moduan. Maletatxoa etxetik kanpo lan egitearen sinbolotzat hartzen da. Exekutiboak, irakasleak, abokatuak... ager daitezke maletatxoarekin, eta ohikoena gizonezkoak izatea da. Alegia, maletatxoa gizonezkoekin identifikatuz, etxetik kanpoko lana (eta gainera lan kualifikatua) gizonezkoekin lotzen da.

Arestian izendaturiko sinbolo hauen balioa erlatibiza dezakegu, baina egia da haur txikienezko liburuak hartuz gero oso arruntak direla, nahiko ohikoak ikerlari feministak aipatzen dituen elementu horiek, eta gainera, berak aipaturiko balioarekin. Hala ere, aitortu behar da azken urteotan –kritika hauen ondorioz, edo irudigileen aldetik ere gero eta kontzientzia handiagoa dagoelako– estereotipo hauek apurtzen

dituzten hainbat eta hainbat lan ikus daitezkeela gure artean. Xola liburuetako Grogo jauna, esaterako, sarritan ikusi dugu amantalarekin harrikoa egiten, patatak frijitzen eta antzeko lanetan. Eta hor ideologia aldetik, aurretik esan bezala, oso garrantzitsua da irudigileen ekarpena; ondorengo irudian, esterako, Grogo jauna ikus dezakegun Xolarekin hizketan; testuak ez du ezer aipatzen Grogo edo Xola egiten ari direnaz hitz egiten duten bitartean, beren arteko elkarrizketa da garrantzitsuena... baina irakurleak/ikusleak Grogo jauna ikus dezake harrikoa egiten, etxeko lanak egiten. Horretaz aparte geure arteko ilustratzaileen jarrera garrantzitsua da sarritan beraiek zehazten dituztelako idazlearen hitzak, euskaraz idazle batek “sendagilea etorri zen” dioenean ez du esaten medikua gizona edo emakumea den; aldiz, ilustratzaileak berehala jartzen dio generoa. Irudietan, testuan beste ideiak transmititu baitaitezke.

Badira, *Los cuentos siguen contando* liburu horretan aztertzen diren beste elementu batzuk: amaren papera, familia mota, gurasoen edo nesken irudiak. Aitortu behar da ondorio nahiko kezagarriak atera daitezkeela kritikari feministaren lan horretatik. Normalean ama etxean (etxekoandre) bakarrik bizi delako, aita agertzen denean egongelako sofan eserita egoten da; ama zerbitzaria izan ohi da, etxekoen zerbitzura dagoen pertsona, besteentzako bizi dena...



Xola eta basurdeak. B. Atxaga; M. Valverde. Erein, 1996

Inork ez dezala pentsa antzinako literaturaz ari-garenik, Arantxa Iturbek 2004an argitaraturiko *Bi ipotx gure etxeko sofan* (Elkar) liburuan, honela deskribatzen du ama eta aitaren etorrera etxera, alaba narratzailearen ikuspuntutik:

Eta azkenean ama iritsiko zen. Eta amari ere ezin nion esan: “Ama, bi ipotx daude salan. Ez molestatu, telebista ikusi nahi dute eta!”. Ze, ama iristen denean, etxera sartu, goitik behera aldatu, mantala jantzi eta afaria prestatzen hasten da. Eta afaria

prestatzen ari den bitartean, arropa zikinak garbigailuan sartzen ditu, eta telefonoa libre baldin badago amonari deitzen dio, aspaldian ondoezik dabilelako. Eta hori guztia egiteari utzi gabe galdetzen dit “zer moduz gaur eskolan, txiki?”. Eta nik “ondo” erantzuten diot, ze, erantzun luzeagoak entzuteko betarik ez du izaten batera eta bestera dabilen bitartean. (Iturbe, 2004: 12)



Bi ipotx gure etxeko sofán. A. Iturbe; J. Zabaleta. Elkar, 2004

Ama superwoman honen ondoan aitaren jarrera oso bestelakoa da Sararen hitzetan:

Bigarren aldiz atea zabaldu zenean banekien aita izango zela. Eta hala zen.

Lortu behar nuen nola edo hala hura salaraino ez etortzea. Korrika joan nintzen sarrerara eta lepora salto egin nion!

–Zer duzu, Sara? –galdetu zidan.

(...)

Nire martingalak ez zuen balio izan. Ez zidan kontua amaitzen utzi. Eta benetan egongo zen nekatuta. Zuzenean joan zen salara oinetakoak aldatu ere egin gabe, eta bi ipotxen artean eseri zen.

Telebistan marrazkiak ematen ari ziren oraindik, eta ez zirudien ipotxak jabetu ere egin zirenik aita bien erdian eseri zenik. Aitak ere ez zituen ipotxak ikusi. Begiak itxita jarri baitzen. (op. cit.: 22-25)

Zenbait kasutan, oraingo Iturberen hau bezala, testuak eta irudiak bat egiten dute eta biek mezu bera transmititzen dute, baina beste askotan, irudietan oso ideologia tradizionala eta zaharkitua transmititzen da; sarritan, gainera, idatzizkoarekin zerikusirik ez duena. Ohikoa da narrazioan etxean daudela esatea, besterik ez, eta irudiak, aldiz, estereotipo batzuk indartuz ama afaria prestatzen eta aita egunkaria irakurtzen erakustea, ikusi izan dugun bezala. Gauza bera esan dezakegu familia ereduari buruz, familia

tradizionala dugulako ia-ia liburu guztietan (nahiz eta azken garaian, aurretik aipatu izan dugun “Pirritx eta Porrotx” bilduman bezala, edo M^a Jose Mendietaren *Aitorrek bi ama ditu*, Erein, 2004, beste familia mota berriak agertu).

Irudiak duen indarra nolakoa den adierazteko, eta azken adibide moduan, hezkidetzaren ideia bultzatu nahi duen adibide bat komentatuko dugu. 1987an katalanez, eta hurrengo urtean euskaraz argitaratu zen Elisabet Abeyàk idatzi eta Roser Capdevilak ilustraturiko *Eta handia egiten naizenean zer?* (Elkar, 1998). Protagonista Aloña izeneko neska bat da, eta honela hasten da liburua: “Egun batez txalupan ibili zen Aloña. Gauza zoragarria dela itsasoan ibiltzea iruditu zitzaion eta esan zuen:

–Handia egiten naizenean marinela izango naiz!”. Eta eskuineko orrian Aloña agertzen da txalupa batean gizonezko batekin eta ametsetan Aloña marinela. Hurrengo orrian ile-apaindegian agertzen da Aloña, gero taxi batean, okindegian, auto mekanikari batekin... eta guztietan Aloñak amets egiten du handia egiten denean lanbide hori izango duela. Eta hor dugu mezu argia, neska mekanikaria izan daiteke, okina, marinela... baina, beste aldetik, ilustrazioetan okina, marinela, mekanikaria eta taxilaria gizonezkoak dira; ile-apaintzailea bakarrik da emakumezkoa. Eta orduan batek pentsa dezake Aloña hori dena izan daitekeela, eta hori dela liburuaren mezu

positiboa, baina etorkizunean izango dela hori,
gaur egun lanbide horiek ez direlako neskontzat.
Ez al da hori irudiak dioena?



Eta handia egiten naizenean zer? E Abeyà; R. Capdevila.
Elkar, 1988

V. Disneyren obrak: ideologiaren boterea, boterearen ideologia

Gaur egun haur literaturaren inguruan munduan dagoen industriarik handiena, eta neurri batean eraginkorrena, Disney dugu. Bere produktuek arrakasta handia izan ohi dute merkatuan, izan ere teknikoki oso lortuak dira (ikusentzunezkoen erabilera aparta egiten dute), teknologia informatibo berrienak erabiltzen dituzte, arreta handia jartzen diote musikari (kalitatea, abeslari ezagunen parte hartzea,...) eta bikoizte lanetan ere aktore ezagunak erabiltzen dituzte. Filmeetatik abiatuz, liburuak, irakurgaiak eta mota guztietako produktuak, merchandising delakoan, plazaratzen dituzte, izugarrizko irabaziak lortuz (1997an, esaterako, 22 mila miloi dolarreko salmentak izan zituen Disney enpresak, –*The Walt Disney Company 1997 Annual Report*-etik ateratako datua–, edo *Lehoi erregea* filmak, lehen urtean,

1994an, 1000 miloi dolar irabazietan, merchandisingeko salmentak kontuan izan barik, alde horretatik esan dezakegu Disney dela munduan entretenimendu arloan dagoen enpresarik nagusiena).

Marrazki bizidunetako pelikula laburretatik abiatuta, gaur egun film luzeak, telesaioak, aldizkariak, liburuak, parke tematikoak... eta baita hiri bat ere dituen enpresa izatera iritsi da Walt Disneyren proiektua. Bere produktu hauek entretenigarriak dira eta irudimena eta fantasia garatzen laguntzen dute, baina horrekin batera badago baloreak transmititzeko asmoa, irakurleak, gaur egungo haur eta gazteak kontsumitzaile bilakatzeko asmo argia; gauzak erosiz, edukiz, zoriontsuago izango garelakoan. Baina hau, guztia, inozentziaren izenean, edo sasi-inozentzia horretan ezkutaturik. Hots, haurrentzat diren gauzak ez omen direlako oso garrantzitsuak, haurrei biolentzia esplizitua edo sexu kontu argiak kenduta gainerakoak ez omen diolako eraginik egiten, ez behintzat kaltegarriak. Horrela, Disneyren munduak fantasia, onura, ideia eta paisaia argiak transmititzen ditu, gure gizarteko ohiko bortxakeria eta indarkeriaren aurrean.

Baina Disney ez da entretenimendu eta dibertsiorako enpresa bat soilik, Michael Eisner-ek, enpresako presidentea, dioen bezala (Eisner, 1995: 8) herri kultura (eta hori da Disneyk bere

produktuekin lortu nahi duena, herri kultura izatea) ez da gizartearen isla bakarrik, herri kulturak eragin nabarmena baitu gizartearen eraketan eta gainera, heziketa boterea da –herri kultura hori bultzatzen edo proposatzen duenaren interes eta nahien zerbitzurako boterea–. Alde horretatik argi eta garbi esan dezakegu gure gizartean kultura –are gehiago mass medien kultura– ideologia eta boterea ere badela. Hau argi eta garbi ikus daiteke Disney konpainia edo horrelako botere guneetan, eta ez aldiz, euskal kultur taldeetan, gurean, neurria eta gaitasunagatik, ez baitago bere ideologia edo bere boterea ezar dezakeen talderik.

Zein da, baina, Disneyk proposatzen duen ideia nagusia? Pertsona bakoitzak aurrera egiteko aukera duela (amerikarren ametsa ere deitu izan dena; lanaren eta esfortzuaren bidez pobrea milionarioa bilaka daitekeen ametsa); jakina, amets horrek elkarlanaren kontrako joera bultzatzen du, eta baita justizia, zuzentasuna, berdintasuna, elkartasuna, eta abarren kontrakoa.

Eta pelikulak, liburuak, panpinak eta abar plazaratu dituen enpresa horrek herri ipuinak izan ditu sarri oinarri. Baina literatura tradizionalako istorio horiek, bai Europako ipuin herrikoien kasuan, bai arabiar kulturatik iritsitakoak, erabat moldatu eta erabili izan dira Disneyren produkzioan interes ideologiko eta ekonomikoaren mesedetan.

Walt Disneyren produktuak balio bikoitze-koak dira, Lotman-ek (1977) esan bezala, bi hartzaile baitute, alde batetik hartzaile zuzena, argiena, haurra; baina, bestalde, haur horren gurasoa ere produktuaren hartzailea da (ugariak dira, zentzu honetan filmeetan ageri diren keinu, txiste... helduei zuzenduak). Eta, benetako hartzailea gurasoa dugu, bera baita kontsumitzailea (gurasoari ez bazaio gustatzen ez du filma erosiko, ez bazaio egokia iruditzen ez dio utziko umeari zinemara joaten, ez dio liburua erosiko,...), alde horretatik filmeetako mezuak hartzailearen gustukoak izan behar dira eta filma bera ere helduaren gustukoa izan behar da.

Zohar Shavitek dio balio bikoitzeko produktu hauek irakurle multzo ezberdinek era ezberdinean irakurtzen edo ikusten dituztela (1999: 151), eta alde horretatik haurraren irakurketa eta helduarena ezberdinak izango dira... baina biek produktu bera irakurtzen/ikusten dute eta biek mezu ideologiko berberak jasotzen.

Aladdin, Edurnezuri, Mulan, Errauskine... Disney faktoriak herrialde ezberdinetako ipuin herrikoien bertsioak egin ditu (baita bestelako lanak ere, *Lehoi erregea*, esaterako, baina hauek gutxienekoak eta berriak dira). Bertsio hauek hartu eta beren interesen arabera moldatu egin dituzte inolako lotsarik gabe. Patrick Zabal-beascoa Pompeu Fabra unibertsitateko irakas-

leak arestian aipaturiko hau guztia aztertu du, eta berak dioen bezala:

Un aspecto importante de cualquier texto, y también del género infantil, son sus valores morales y culturales reflejados más o menos explícitamente. Desde esta perspectiva podemos decir que los productos Disney suelen tener el efecto de americanizar los textos que adaptan de autores de otros países (Zabalbeascoa, 2000: 24).

Aladdin

Zabalbeascoak, aipatzen duen ideia horren adibide moduan, Aladdin protagonistarekin gertaturikoa aipatzen du. Izan ere amerikar baloreak bultzatzen baitituzte Aladdinek eta bere lagunek; amerikar kirolak izango dituzte gogoko, amerikar feminismoa defendatuko dute, norberaren askatasuna desiratuko... eta fisikoki ere amerikarren antza izango dute. Gaiztoek, aldiz, fisikoki ezaugarri arabiarragoak dituzte, hizkera ere atzerritarra (Ingalaterrako ingelera). Azken kontu honi dagokionez, hona hemen Zabalbeascoak dioena:

se puede estar sentando las bases de la xenofobia con la identificación de los “malos” con acentos siempre extranjeros. Yafar (el siniestro) tiene acento británico de la clase

alta; Sultán (el senil), británico con un tono de “abuelito un poco senil”; Lago (el malo simpático) habla como un americano de Nueva York; Aladdin y Yasmín usan el americano estándar; los personajes menores que son árabes suenan a extranjero exótico; y el genio: americano estándar (*op. cit.* 28-29).

Aladdin filmean (izenburua bera ere aldatua izan zen, Aladin izan beharrea, “beraiena izateko”; hots, egile eskubideak, izen horren erabilera –komertziala, jakina– Disneyrena izateko), arabiarren kontrako xenofobia bultzatzea dugu Estatu Batuetako enpresa horren erabilera noraino iristen denaren adibide argia. Aladdin eta Yasmín amerikanizatzen diren bitartean (askatasunaren nahia, izena aldatzea –Al proposatzen du, Albert, Alan, Alexander, eta horien antzera, bere jatorri arabiarra ezkutatu–, eta abar) gaiztoak arabiarrek dira (“I had to cut a few throats”, lepo batzuk moztu behar izan zituela dio gaizto arabiarrek, hori delako arabiarrek egiten dutena, lepoak moztu; edo belarriak, pelikula hasierako kantan dioten bezala) edo, bestela errusiarren antzekoak bere eraikinetatik (sultanaren jauregiak badu Kremlimaren antza). Ezaugarri fisikoetan ere Aladdin eta Yasmínenak moldatu egin dira; ez ordea arabiar gaiztoenak, hauen arabiar ezaugarri fisikoak gorde dira.

Gainera, kultura amerikarra inposatu nahiaz gain (telebista espektakuluak, saltzaileen jarrera, produktu amerikarrak, Jack Nicholson edo Groucho Marxen aipamenak...) bada arabierarekiko mesprezu edo, gutxienez, baztertzeko nahia pelikulan ageri diren arabierazko testuak marrazki ulergaitzak besterik ez direlako.

Bestelako ideiak direla eta, ohiko morala bultzatzen du *Aladdin* pelikula horrek, zintzoa izan behar dela, norberaren lana (talde lanaren aurrean) bultzatu beharra, ausardiaren garrantzia... eta amaiera zoriontsuko ipuinen antzera ona beti irabazle ateratzen dela gaiztoaren kontrako borrokan.

Bitxia da istorio arabiar ezaguna nola bihur daitekeen –bihurtu duten esan beharko genuke– arabiarren kontrako pelikula xenofoboa. Horixe dugu Walt Disney enpresaren egitandia!

Marierrauskin vs Errauskine

Antzeko zerbait esan genezake beste herri ipuin askoren inguruan. Disneyk hartu eta beraien interesen arabera moldatu egin dituzte (eta, horren ondorioz, zoritxarrez, askorentzat bertsio hori da benetakoa). Horrela, *Errauskine* pelikulan, esaterako, bigarren mailako protagonistak sartu dituzte (saguak eta katua, beraien

artean beste istorio paralelo bat sortzeko), nobleen militarizazioa dugu (jantzi militarrik –alemaniar estilokoak– dituzte) eta intriga sortzeko amaierako probak aldatu izan dituzte. Jakina, Grimm anaien “Marierrauskin” ipuinaren usaina du bertsio horrek, baina oso-oso aldatu izan da. Pelikularen hasieratik nabaritzen da Walt Disneyren ukitua. Grimm anaien ipuinean ama ondoezik jarri eta hil egiten da; Disneyren lanean, berriz, heriotza beti ezkututzen den kontua da, ezatsegina, ezegokia, kaltegarria edo gustu txarrekoa izan daitekeelako, eta horregatik aita hiltzen denean pelikulan (ipuinean gertatzen ez dena) ez da ikusten heriotza. Marierrauskinen laguntzaileak usotxo zuri batzuk eta usapalak dira Grimm anaien ipuinean, ez amona maitagarria. Baina ezberdintasun handienak bigarren mailako istorioak sartuz sortu ditu Disneyk (saguen eta katuaren arteko istorioa, esaterako) eta ipuinean ageri diren egoera gordinak aldatuz. Hau da, Marierrauskinek galdutako zapata probatzerakoan...

(Ahizpa) Zaharrena zapata aldean zuela logelan sartu zen probatzera, eta ama ondoan zuen. Baina behatz erpurua ezin izan zuen sartu, zapata beretzat txikiegia zelako; orduan amak labana bat luzatu eta esan zion:
–Ebaki ezan behatza; erregina haizenean, ez dun gehiago oinez ibili beharko. (Gomez: 1999: 74)

Odolak salatu zuen, baina, emaztegai falsua. Hori ikusita, amak labana eman beste alabari eta esan zion:

–Ebaki ezan orpoaren zati bat; erregina haizenean, ez dun gehiago oinez ibili beharko.

Neskatxak ebaki zuen, bada, orpoaren zati bat, oina indarrez zapatan sartu, eta printzearen aurrera atera zen. (op. cit.: 75)

Odol arrastoak ere salatu zuen bigarren alaba.

Jakina, horrelako konturik ez da ageri pelikulan, ezta amaordeak Marierrauskini jarritako eragozpena dantzaldira joateko (pelikulan ahizpaordeek soinekoa apurtzen diote, baina ipuinean “Ordu batean bi erretilukada dilista errauts artetik garbi-garbi batzen baldin badi-tun, joatea izango dun” (op. cit.; 72) esaten dio amaordeak), eta bai agertu, ordea, amaordeak giltzapetzen duen eszena (saguen papera garrantzitsua eta beharrezkoa bilakatuz).

Istorioaren amaiera ere oso ezberdina da; Walt Disneyren bertsoan Errauskine printzearekin joaten da eta ezkondu (eta zoriontsu izan ziren betiko), jatorrizko bertsoaren amaiera, berriz, askoz gordinagoa da, gaiztakeria ordaindu egiten da:

Printzearen eta Marierrauskinen ezkontza ospatu behar zenean, ahizpaordeak azaldu

ziren, adiskidetu eta haren zorionean parte hartu nahian. Ezkongaiak elizara zihoazela, zaharrena eskubian jarri zen, gazteena ezkerrean, orduan usoek begi bana lehertu zieten mokoka; ondoren, elizatik irtetean, zaharrena ezkerrean eta gazteena eskubian jarri ziren, orduan usoek beste begi bana lehertu zieten mokoka. Eta bititza osorako itsumena izan zuten zigor gisa beren makurkeriagatik eta faltsukeriagatik. (op. cit.: 77)

Ikusten denez krudelkeria guztia, bortizkeria guztia ezabatu egin da, baina ez istorioak transmititu nahi dituen balore garrantzitsuenak. Ez ezazu borrokatu, ez saiatu zure bititza aldatzen, patuak erabakitzen baitu gure ordez. Goi mailara igotzeko modua ez dago gure esku (eta ezta bururatu ere behe eta goi mailako ezberdintasunak ezabatzearen kontu horiek; status sozialak ezin dira mugitu). Zoriontasuna familia osatzean lortzen da (Errauskinek ama galdu ondoren ez du zorionik, ezta benetako familiarik harik eta printzearekin ezkondu arte), eta emakume baten helburua bizi honetan senar egokia bilatzea da, baina baita printzearen beharra ere (erregearen kezka nagusia bere semeak emaztegia bilatzea da eta horregatik antolatzen dute dantzaldia, erresumako neska emaztegai guztiak gonbidatuz).

Ikusi dugunez Disneyren lanetan kulturaren mendebalizazioa ematen da (edo agian, zuzenago

esateko, estatu batuazioa esan beharko genuke; *Aladdin* pelikulan ikusi dugun bezala, *Mulanen* ere, gaiztoen ezaugarri fisikoak, esaterako, askoz “txinatarragoak” dira, Mulan eta bere lagunetak baino), estereotipo sexistak indartzen dira (*Sirenatxoa* edo *Lehoi erregea* filmetan, esaterako, pertsonaia femenino guztiak maskulinoen menpe daude; gizonezkoei –baita animaliak direnei ere– ez zaie uzten “emakumezkoen” lanak egiten, Errauskine filmeko josi nahi duen saguari gertatzen zaion bezala; eta emakume eredu bi bakarrik eskaintzen dira: ederra, pasiboa, ona vs. aktiboa, independentea, maltzurra eta gaiztoa), gizarte statusa, giza banaketa, iraunarazteko asmo nabaria da (eta patuak erabakitzen du gure etorkizuna, ez dezagun beraz, borrokatu, ez gaitetzen saiatu egoera aldatzen), familia tradizionalaren aldeko jarrera dago (familia heterosexuala, zuria eta erdi mailakoa), arrazakeria ere nabaria da Disneyren obretan (ikusi izan dugun bezala, edo *Lehoi erregea* pelikulako hienen hizkera hautaketan, beltzen eta hispanoen hizkera baitarabilte) eta historia moldatu izan dute beren interesen arabera (harrigarria indioen jokabidea Amerikako historian), Girouxek (2001: 53) aipatzen den bezala:

La reescritura que hace Disney de la memoria colectiva refleja este sentimiento y ofrece a sus clientes una historia “sin clases,

conflicto o delito, un mundo de consumo constante, un supermercado de la diversión”.

Eta hori guztia da, hain zuzen, gure hurrek ikasten dutena (sarritan eskolan edo bestelako erakunde edo estamentuetan irakasten zaienaren pare jarritz), gure hurrek bereganatzen dutena.

Eta hala eta guztiz, nola da posible produktu horiek horrelako arrakasta izatea? Arestian aipatu bezala teknika, teknologia berrienak, aktore ezagunak... hots, kalitatea zaintzen dute eta beren produktuak entretenigarriak dira. Kalitatezko produktu neutroa eskaintzen omen dute ideologikoki (boterearen ideologia, indarrean dauden estereotipoak eta tradizioa bultzatzen duten produktuek, berdin da egunkari bat izan edo pelikula bat, itxura hori dutelako; hots, ez dutela ideologia markaturik, gure artean *Diario Vasco* edo *El Correo Español* bezalako egunkariekin gertatzen denaren antzera). Edozein modutan euskaldunok ezin dugu Disneyren pelikularik ikusi euskaraz, ezin gozatu *Aladdin*en gaiztoak Bermeoko euskaraz? ala Oñatikoaz?... ez dakit nola egingo genukeen gaiztoei beltzen hizkera jartzeko euskaraz, zerbitzariei hispanoena edo protagonista nagusiei estatu batuar zurienaren pareko bat gure artean. Hots, zeharka eta ezkutuan transmititzen den ideia hori, guztiz arrazista eta klasista, nola egin euskaraz. Baina euskaraz ez izatearen “errua” ez da gure interpretarien gaitasun ezagatik, ez,

Disney konpainiak ez du baimenik ematen gurea bezalako hizkuntza txiki batean bere pelikulak plazaratzeko... gure neska-mutikoen zorionerako.

VI. Irakurketa kritikoaren alde

Gure asmoa baldin bada gizarte aurrerakoa, demokratikoa eta parte hartzailea, bizilagunen izpiritu kritikoa bultzatzen duen gizartea, hori baldin bada guk geuk nahi duguna, sexismoaren eta indarkeriaren aurkakoa, xenofobia eta ezberdintasun sozialak baztertzen dituen gizartea, orduan hurrengo belaunaldiak kritikoak izan daitezten borrokatu beharko dugu. Hurrengo belaunaldientzako irakurgaietan dauden balore ezagun eta askoren kontra aritu beharko gara. Alde horretatik, inozente samarrak diruditen testu hauek azalerratu eta beren benetako zama ideologikoa aztertu behar dugu, presente izan eta guk geuk nahiko dugun gizartearen kontrako baloreak transmititzen baldin badituzte aurre egin.

Heziketa aurrerakoa eta kritikoa eskatzen dugu, Pennsylvaniako unibertsitateko heziketa

irakaslea den Girouxek (2001: 1) bezala, guk ere uste dugulako “heziketa ez dela inoiz inozentea, gizakion, kulturaren eta gizartearen ikusmolde partikularra eskatzen baitu”. Alde horretatik pertsonaren nortasuna ezabatzen duten jokabideen kontra jo behar dugu eta eguneroko bizitzan, heziketan, irakurketetan atsegina eta gustuaz gain gure nortasuna garatzen lagungarriak direnen alde. Bai eta, haur eta gazte liburuak aukeratzean.

Ezin dugu pentsatu haurrentzako liburuak inozenteak direla, politikak, entretenigarriak eta dibertigarriak, besterik ez direla, testu guztiek ideia eta balore batzuk transmititzen baitituzte, bai irudien bidez, bai testuaren bidez. Jakina, badira baita ere, beste muturrerainoko jokabideak dutenak eta literatura testuak ikasteko baino erabiltzen ez dituztenak. Jakin dezagun, beraz, literaturaz disfrutatzen, ipuin bat irakurtzean, album bateko irudien irakurketa egitean, pelikula bat ikustean... baina egon gaitezen ere adi liburu, film, poesia edo obra horren atzean ezkututzen diren mezuen aurrean. Obra honetan irizpide orokor batzuk markatu dira. Haur liburuetan emakumearen papera zein den ikusi dugu, nola azaltzen den indarkeriaren gaia, irudiaren bidez transmititzen diren baloreak edo Walt Disneyren obretan ageri diren mezu ezku-tuak. Adibide batzuk baino ez dira, testu inozente horiek guztiz ideologikoak direla erakus-

teko, eta aldi berean gutako bakoitzaren baitan irakurketa kritikoaren beharra azpimarratzeko.

Gure gizartean botere politikoa oso garrantzitsua da, baina agian hori baino garrantzitsuagoa da botere kulturala. Nolako pertsonak nahi ditugu gure gizartean? Nolako ametsak elikatu behar ditugu? Ba al dago parte hartzea, justizia, izpiritu kritikoa garatzeko biderik? Eta, azkenik, literaturak ba al du zer egiterik hori horrela izan dadin?

Gure ustez, kulturak eragin nabarmena izan dezake gizartean, nahi dugun gizarte motan. Horretarako guztiz beharrezkoa da ikasteko gogoia eta aurkezten zaizkigun lan ezberdinekin kritikoak izatea.

Bibliografia

- AGURRAZA, X. (1994) *Pike eta Pitito*. Lizarra, Txalaparta.
- ARIZTIA, M. (1982) *Amattoaren uzta. La Moisson de Grand'Mère*. Donostia, Elkar.
- ARRIETA, J. A. (1994) "Broken arrow" *Euskaldunon Egunkaria*, 94-11-20, 33.
- ASOCIATION EUROPÉENNE DU CÔTÉ DES FILLES (1998a) *¿Qué modelos para las niñas?*. Paris, Du Côté des Filles.
- (1998b) *¿Qué ven los niños en los libros de imágenes?*. Paris: Du Côté des Filles.
- ATXAGA, B. (1991) *Behi euskaldun baten memoriak*. Iruñea, Pamiela.
- (1996) *Sara izeneko gizona*. Iruñea, Pamiela.
- BORDA, I. (2001) "Plazarakoak? Bai, noski" in URIBE, K. *Azken aldiko euskal narratiba. Sortzaileak eta irakurleak*. Bilbo, UEU.

- BROWNE, A. (2003) *Tunela*. Donostia, Hiria.
- CALVINO, I. (1983) *Punto y aparte*. Barcelona, Bruguera.
- CASSANY, D. (2006) *Tras las líneas. Sobre la lectura contemporánea*. Barcelona, Anagrama.
- CENDAN PAZOS, F. (1986) *Medio siglo de libros infantiles y juveniles en España (1935-1985)*. Madrid, Fundación Germán Sánchez Ruipérez.
- CERDA, H. (1978) *Literatura infantil y clases sociales*. Madrid, Akal.
- CILLERO, J. (1994) *Eddy Merckxen gurpila*. Donostia, Erein.
- COLOMER, T. (1994) “A favor de las niñas”, *CLIJ* 57, 7-24.
- (1999) *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Madrid, Síntesis.
- EGAÑA, I. eta Edu ZABALETA (2007) *Maldetan sagarrak. Euskal gatazka euskal literaturan*. Bilbo, UEU.
- EISNER, M. (1995) “Planetized Entertainmet”, *New Perspectives Quartely* 12:4
- ERREA, I. (2003) *Literatura eta harrikoa*. Iruñea, Pamiela.
- ETXANIZ, X. (2001) ”Ideologia haur literaturan”, *EGAN* 2001-1/2, 137-158.

- ETXEBERRIA, H. (2002) *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan*. Irun, Alberdania.
- GARCIA PADRINO, J. (1992) *Libros y literatura para niños en la España contemporánea*. Madrid, Fundación Germán Sánchez Ruipérez.
- GIROUX, H. A. (2001) *El ratoncito feroz. Disney o el fin de la inocencia*. Madrid, Fundación Germán Sánchez Ruipérez.
- GOMEZ, G. (ed.) (1999) *Grimm anaien ipuinak*. Iruñea, Pamiela.
- HOLLINDALE, P. (1988) "Ideology and the Children's Book", *Signal*, 3-22.
- IGERASORO (1998) *Kartapazioko poemak*. Zornotza, Ibaizabal.
- ITURBE, A. (2004) *Bi ipotx gure etxeko sofán*. Donostia, Elkar.
- KAZABON, A. (2003) *Kaixo, Kattin!*. Donostia, Elkar.
- KORTAZAR, J. (2002) *Diglosia eta euskal literatura*. Donostia, Utriusque Vasconiae.
- (2003) *Literatura vasca desde la Transición. Bernardo Atxaga*. Madrid, Ediciones Clásicas-Ediciones del Orto.
- LERTXUNDI, A. (2002) *Zorion perfektua*. Irun, Alberdania.

- LOPEZ GASENI, M. (2006) *Literaturak umeei begiratu zienean*. Iruñea, Pamiela.
- LOTMAN, J. (1977) “The dynamic model of semiotic systems” in *Semiotics* 21, 193-210.
- LLUCH, G. (ed.) (2000) *De la narrativa oral a la literatura per a infants*. Valencia, Edicions Bromera.
- MURUAGA, Begoña. (1998) “Euskal literatura eta androzentrismoa”, *Jakin* 106, 99-104.
- MARTINEZ-MENCHEN, A. (1971) *Narraciones infantiles y cambio social*. Madrid, Taurus.
- OLAZIREGI, M. J. (1998) *Bernardo Atxagaren irakurlea*. Donostia, Erein.
- (2002) *Euskal eleberraren historia*. Bilbo, Labayru ikastegia. Amorebieta-Etxanoko udala.
 - (2006) “Literature for children and violence in a minority literature: the case of basque literature” *AILLIJ* 4, 77-92.
- ORQUIN, F. (1989) “La nueva imagen de la mujer” *CLIJ* 11, 14-19.
- (1995) “Estereotipos en los libros no sexistas”, *24º Congreso Internacional del IBBY*, Madrid, 106-108..
- RODRÍGUEZ ALMODÓVAR, A. (2000) “Los otros cuentos. El humor en los cuentos populares” in LLUCH, Gemma (ed.) (2000)

- De la narrativa oral a la literatura per a infants*. Valencia, Edicions Bromera. 133-161.
- SARASOLA, I. (1975) *Euskal literatura numerotan*. Donostia, Kriseilu.
- SAIZARBITORIA, R. (2003) *Kandinskyren tradizioa*. Donostia, Erein.
- SHAVIT, Z. (1999) “La posición ambivalente de los textos. El caso de la literatura para niños” in IGLESIAS SANTOS, Montserrat (bil.) *Teoría de los polisistemas*. Madrid, Arco/Libros, S.L.
- STEPHENS, J. (1992) *Language and ideology in Children's fiction*, London and New York, Longman.
- TUCKER, N. (1991) *The child and the book*. Cambridge, Cambridge University Press. Canto edition-reprinted.
- TURIN, A. (1995) *Los cuentos siguen contando*. Madrid, horas y HORAS.
- URKIZA, A. (2006) *Zortzi unibertso, zortzi idazle*. Irun, Alberdania.
- WHITE, L. (1996) *Emakumezkoen hitzak euskaraz. Basque women writers of the twentieth century*. Reno, University of Nevada. (argitaragabea).
- ZABALBEASCOA, P. (2000). “Contenidos para adultos en el género infantil: El caso del

doblaje de Walt Disney” in Ruzicka, V. et. al. (ed.) (2000) *Literatura infantil y juvenil: tendencias actuales en investigación*. Vigo: Universidad de Vigo. 19-30.

ZAVALA, I. (koord.) (1993) *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua castellana) I. Teoría feminista. Discursos y diferencias. Enfoques feministas de la Literatura Española*. Barcelona, Antrophos-Dirección General de la Mujer.

ZUBIZARRETA, P. (1999) *Usoa, hegan etorritako neskatoa*, Donostia, Erein.

– (2003) *Usoa. Karpeta morea*. Donostia, Erein.

KRITIKA LITERARIOA

bilduma

1. Jon Kortazar: *Diglosia eta euskal literatura*, 2002
2. Iratxe Gutierrez: *Malkoen mintzoa. Arantxa Urretabizkaia eta eleberrigintza*, 2002
3. Orixe: *Euskal literaturaren historia laburra*, 2002
4. Paulo Iztueta: *Kritika literarioaren lehen saioak (1926-36)*, 2002
5. Paulo Iztueta: *Testu hautatuak euskal estetikaz*, 2002
6. Manu Lopez Gaseni: *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan*, 2005
7. Ur Apalategi (arg.): *Belaunaldi literarioak auzitan*, 2005
8. Iban Zaldúa: *Animalia disekatuak*, 2005
9. Jon Kortazar: *Joseba Sarrionandiaren ipuingintza. Zuhaitz errimesa*, 2005
10. Paulo Iztueta Armendariz: *Euskal idazleen belau-naldiez*, 2005
11. Mikel Asurmendi: *Komatxo artean 1. Elkarrizketa literarioak 2000-2006*, 2007
12. Mikel Asurmendi: *Komatxo artean 2. Mahai-inguruak 2002-2006*, 2007
13. Jon Kortazar: *Postmodernitatea euskal kontagintzan*, 2007
14. Xabier Etxaniz Erle: *Literatura eta ideologia*, 2007